

HAMABOSTEKARIA 120. zenbakia 97ko irailak 5

GOIERRITARRA



Arg.: M. Albisu



h e m e n
DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

HILABETE HONETAN ESPOSIZIO ALDAKETAGATIK
EROSI KALITATEA PREZIORIK ONENEAN



UGALDE edariak

- Ardoak ● Likoreak
- Cava eta Champagnak

Euskal jai alaiak opa dizkizue guztioi!

Kale Berria, 3

☎ 88 12 26 - ☎ /faxa 16 05 74

ORDIZIA



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba
Telleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
rre eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Xabier Urteaga,
Nagore Goiburu, Josune Aldabe,
Gabino Murua, Aitor Arrue,
Maddalen Hernandez, Jose Ra-
mon Pato eta Goierriko EA.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

**Udazkenerako ikastaroak
Kulturkideren eskutik**

Beasaingo Kulturkidek udazkenerako Grafologia, Eguzki Ingenieria, Idazkera mintegia ikastaroak eta Euskal idazleak, Itzultzaile izeneko ihardunaldia antolatu ditu. Ostiral arratsalde eta larunbat goizetan burutuko dira ikastaro eta ihardunaldiak. Oso ikuspegi praktikotik antolatuak dira ikastaroak.

● Idazketa lantzeko ikastaroaren helburua ez da gramatika edo literatura gehiago erakustea. Arian arian mezuak ondo komunikatzen lortzea baizik. Jon Iñaki Lasa izango da irakaslea.

● Grafologia ikastaroan hizkiaren alderdi grafikoa, distribuzio, proportzio eta neurriak bezala presioak eta formak, zuzenbidea, abiadura, makurdura, lotura, eta abar aztertuko dira. Eta baita azterketa grafiko eta psikologiaren arteko harremanen berri eman ere. Irakaslea Irune Ibarra izango da.

● Eguzki energiaren aplikazio praktikoak ikastaroa batez ere Hezkuntza Erreformen murgilduta daudenei dago zuzendua. Berreskuraturako materialekin eraikitako eguzki aparatu ezberdinak aurkeztuko dira bertan. Adierazpenak ikusentzunekoei eta dokumentu idatziekin lagunduta joango dira.

● Euskal Idazleak, Itzultzaile ihardunaldia 36 ordukoa da eta urriaren 4tik azaroaren 29ra burutuko da, larunbatero goizeko 9.00etatik 1.30etara. Euskal idazleek hartuko dute parte.

Matrikula epea irailaren 8tik 30era bitartean egongo da zabalik, goizez 10.00etatik 1.00era eta arratsalde 4.00etatik 7.00etara. Ikastaroak 16.000 pezeta kostatuko dira eta matrikularekin ordainduko da ikas-materiala. Ikastaroen bukaran agiriak banatuko dira. Kulturkiden (16 18 40) edota Beasaingo Udaletxean (88 50 51) eman daiteke izena.

BOTA BERTSOA



Iker Zubeldia

**Euskal jaietan
Ordiziara**

Doinua: Hamarreko handia

Euskal jaietan Ordiziara goierritar guztiok fin. Ikuskizuna ziurtatuta hainbat ekitaldirekin. Baserritar ta artzai guztiak pozik dabilte elkarrekin eta gaztaia egiten dute urrezko esnearekin.

Ordiziako kale guztiak jarri dituzte galako oilo eta behi, behi eta oilo osatuko garelako. "Txaroles, Suizar ta Pirenaika" rubia, morena pranko ganadu mota ugari dago gustu guztietarako.

*Eusko Jaularitzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Beasaingo Udal Euskaltegira!



10 urte euskaren aldeko lanean!

1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza: Maila guztiak, EGA eta EGAtik gorakoak • **Ordutegi zabala** • Beka sistema • **Ikasketa bereziak** eskariei egokituak • **Matrikulaldia:** irailaren 8tik 23ra arte • **Bulegoko ordutegia:** Goizez: 09.00-13.00 / Arratsaldez: 15.00-19.00 • 16 urtez gorakoentzat • Informazio gehiago Udal Euskaltegian

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin Plaza, Kultur Etxea • BEASAIN • Tel.: 88 90 94



UDAL
EUSKALTEGIAK

TXANDAKA



Herri bat ginela sentituen

Abiatu gara Zaldibitik autobus bete zahar eta gazte. Irteeraren helburua: sega lehiaketa batean parte hartzea. Baviera (Alemania) aldean da lehiaketa. Egun bereziaren bezperan, beste herrialdeen artean guk ere gure izaeraren izpiak zabaldu ditugu dantza saiotxo baten bitartez: lehenik 'Agurra', gero 'Kaskarotz', sueltoak... txalaparta pittin baten zalapartaz blai.

Iritsi da lehiaketa eguna, gure segalariak urduri dira: garbituak izango diren partzelen alboan bandera ugari, tartean gure ikurrina. Ekipo gazteak jantzi du uniformeak: niki txuri bat bizkarrean Euskal herriko mapa ikurrinaz eta segalari baten itzalaz hornitua, maoizko prakak eta abarkak. Desfile bat egin dute herri bakoitzak bere izena karteltxoan duela, bere bandera: Österreich (Austria) dio lehen kartelak, Schweiz (Suitza)... eta Baskeland (Euskal Herria) azkeneko kartelak, ikurrina alboan euskal segalariak sega sorbaldan dutela, trikitilariak, euskara ahoz aho, dantzariak... herri bat ginela sentituen.

Maddalen Hernandez Irastorza

Zer moduzkoa izan da lanerako itzulera?




Jesus Mari Toral
26 urte, kazetaria
ordiziarra

Aterrizatzen ari naiz, kostatu egiten zait berriz ere lanean hastea. Baina oporren ondoren egunen batean itzuli beharra dago.

Ramon Lizarraga
30 urte, dendaria
beasaindarra

Astebeteko oporrak bakarrik izan ditut eta ez zait hainbeste kostatu lanera itzultzea. Diskoak saltzen ditudanez, Benicasimgo musika jaialdia batean izan naiz oporretan.



Jon Aierbe
19 urte, ikaslea
ordiziarra

Oporrak aspaldi bukatu zitzaizkidan, baina beti gogorra izaten da oporretatik lanera itzultzea.



GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90

Mallotz, 25. pab.

Faxa: 88 82 67

ORDIZIA


ORDIZIAKO



Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa



☎ 88 23 00

ORDIZIA



OINETAKOAK OSAGARRIAK

Festa onak pasa!

J. M. Barandiaran Plaza, 3

☎ 88 61 77

ORDIZIA

ZINEA

ORDIZIA:

'Mentiroso compulsi-
vo'. Ostirala 5: 22:15; la-
runbata 6: 19:30 - 22:15;
igandea 7: 16:45 - 19:30 -
22:15; astelehena 8:
19:30.

'El quinto elemento'.
Igandea 14: 16:45 - 19:30
- 22:15; astelehena 15:
19:30.

Goieniz zine kluba

97-98 denboraldiko lehen
zikloa martxan jarriko du
Goieniz zine klubak, irai-
laren 25ean. Abono txar-
telak salgai egongo dira
asteburu honetatik aurre-
ra, ohiko lekuetan: 7 ema-
nalditarako abonoa, 2.000
pezetan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Irailak 12, Beasaingo
antzerki taldeak 'Bost du-
roko opera' lana taularatu-
ko du, Herri Antzokian,
22:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Irailak 12, Aire librean
Thailandia eta Nordkapp
ikusentzunekoen emanal-
dia, Kepa Gonzalezen es-
kutik, Zaldizurreta plazan,
22:30etan.

LAZKAO:

Irailak 10, "Gipuzkoako
jaiak Uda", Jabier Juanesen
eskutik, Maizpiden,
21:00etan.

BERTSOLARIAK

ORDIZIA:

Irailak 13, bertso-saioa
Herri Antzokian, 22:30-
etan: Mikel Aranburu, Xa-
bier Nabarte, Xabier Su-
kia, Alaitz Sarasola, Naika-
ri Gabilondo, Ibai Esoain
eta Alfonso Jimenez. Do-
hainik.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Irailaren 12tik aurrera,
Rosa Mari Gullonen era-
kusketa, Usurbe Antzokiko
Erakusketa-Aretoan.

ORDIZIA:

Irailaren 5etik aurrera,
Jose Luis Zumetaren era-
kusketa, Barrenan.

Usurbeko festak

Irailak 6, larunbata:

21:00etan: Herri afaria, Do-
nostiako trikitixa eta antzer-
kia.

Irailak 7, igandea:

8:00etan: Suziria.

11:00etan: Herri meza triki-
tilari eta bertsolariekin.

11:30etan: Aizkorri Mendi-
zale Elkartekoei ongi-etorria.

12:30etan: Trikitilariak: La-
ja eta Landakanda.

Ondoren: Sebastian Lizaso
eta Andoni Egaña bertsola-
riak.

13:00etan: Aurtengo agure
omenduari sari ematea.

Ondoren: Jokinen omenal-
dia eta lore eskaintza.

13:30etan: Herri-kirolak:
Arrospide-Azurmendi Olasa-
gasti-Arria Varen aurka.

14:30etan: Bazkari herri-
koa.

17:00etan: Haur jolasak.

18:30etan: Erromeria.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.

BEASAIN

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Jai zoriontsuak denoi!

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA

97-98 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK

2, 3, 4 eta 5 ordu
goizez, arratsaldez
eta gauez

MATRIKULA EPEA

Irailaren 26rarte
goizez eta
arratsaldez

MAILAK

Euskalduntze
Alfabetatze
EGA

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40

LAZKAO: Elosegi, 16 - 2. ☎ 88 91 74

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

1997-98 ikasturterako beka deialdia

Unibertsitate mailako eta Goi-mailako beste ikaske-
ta batzuk egiteko izaera
orokorreko bekatarako
deialdia zabaldu da. Informa-
zio zehatzagoa eta in-
primakiak Ordiziako Gaz-
te bulegoan (16 07 43) di-
tuzu.

Gazte langabetuentzat tailerrak Goierri

Goierriko Lanbide Haste-
penen ikastetxeak 97-98
ikasturterako tailer hauek
antolatu ditu 16-20 urte
bitarteko langabetuentzat:
sukaldaritza, karrozeriako
pintura, autoen mekanika
eta igeltseritza. Izen ema-
tea irailaren 12rarte dago
zabalik. Informazio gehia-
go 889200 telefonoan du-
zue.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia-Ordizia).
Irailak 6 - 7: Larnaga. (Kale Nagusia, 40 - Ordizia).
13 - 14: Cuesta (Nafarroa Etorb., 39 - Beasain).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Bi lagun behar dira Bil-
bon pisua osatzeko. 88 52 71.
Elordi.

☐ Pertsona bat behar da
Leioan pisua osatzeko.
13.000 pezeta. 883157.
Eguerdietan deitu. Amaia.

☐ Bilbon (San Inazio) pi-
sua osatzeko pertsona bat be-
har dugu. Zuriñe, Ihintza.
453474 - 215654.

☐ Lagun bat behar da Do-
nostian ikasle pisu bat osatze-
ko. 88 39 90. Ainhoa.

Salerosketak:

☐ Husky txakurkumeak sal-
gai. 65 16 82.

☐ Cocker eta euskal artzain
txakurrak oparitzen zaizkie
pertsona arduratsuei. 883292.
Koro.

Lana:

☐ Herriz herri dabilen mu-
sika talde euskaldun batek
bajista bat behar du. Seriotia-
suna. 80 11 24. Xabi.

☐ Dekorazioa: altzari mar-
gotuak, ormetako dekora-
zioa, paperezko panpinak,
muralak, koadroak, logotipo-
ak... egiten dira. Jaione.
883219.

KURTSO HASIERA: IRAILAK 15

nick's
ENGLISH CENTRE

IZEN EMATEA: IRAILAREN 1etik AURRERA
GOIZEZ: 880083 edo 160051 telefonoetan
ARRATSALDEZ: 18:00-20:00 zentruan bertan
*Zorionak Cambridge-ko FCE az-
terketa egin zenuten guztioi*

J. M. Barandiaran, 1 ORDIZIA

Alpe

- ✓ Sukaldeko altzariak
- ✓ Elektragaiak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84
BEASAIN

ELOLA
ALTZARIAK

Etxeko eta sukaldeko altzariak

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoa. 65 29 01



**LAZKAOKO
MAIZPIDE**
euskaltegia

1997/98 IKASTURTEA

• IKASTAROAK URTE OSOAN:

- ✓ BARNETEGIA: Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
- ✓ BESTE BATZUK: 5 ordu goizean (8 - 13:30)
2 ordu egunean

• MAILA GUZTIAK

HABEren dirulaguntzaz.

DEITU ETA EMAN IZENA!

Tefnoa.: 88 92 31 - 88 92 32

LAZKAO



Goierriko
Eusko Alkartasuna

“Ezin daiteke zalantzan jarri Plataformak orain arte lortutako arrakasta, handia nahiz txikia, bere apolitikotasunari esker lortu dela, alegia, guztiok batzen gintuen helburu argi eta benetako hori nagusitu delako, eta horixe izan da, egun ere bada eta geroan ere izango da gure lokarri: N-laren bide-bikoizketak alderdien interesen gainetik egon behar duelako”.

Etxegarateko bikoizketa-rekin hertsiki loturik Garraio eta Errepide Batzordeak Ez-Arauzko Proposamena onetsi ondoren, alderdi politiko desberdinen prentsa-ohar eta prentsaurreko ugari ari gara ikusten maiatza eta ekaineko hilabeteetan zehar lortu omen den (zerbait, gutxi edo ezer ez) horren eragile nagusi bezala guztiek azaldu nahi dutelarik. Nolanahi ere, komeni da gertatutakoa gogora ekartzeta eta ahalik eta objetiboena izatea, bakoitza bere lekuan jarritz.

ETXEGARATEREN aldeko Plataforma 1994. urteko maiatzean sortu zen, baina inolako ekin-tzarik burutu gabe egon da 1996. urte erdialdera arte, egun horretan jarri baitzen martxan, Goierriko eskualdean EAJk bere esku ez zituen udalek, batez ere eta nagusiki, emandako bultzadari esker.

GOIERRIKO EAJko alkateek Plataformaren barruan izan duten jokaera zentzugabekeria hutsa izan da, “beren” herriaren interesak defendatu beharrean, Sudupe Diputatu Nagusi jaunaren eta bere alderdiaren, EAJren, jarraipideak defendatzera makurtu baitira. Zeintzuk dira interes horiek? Argi dago. Eibar-Gasteiz errepidearen lehentasuna defendatzen ari dira eta Etxegarateko bidea inoiz bikoiztera iristen baldin bada, bidesariaz izango da; alegia, Etxegarateko bidea bikoizteko-tan, bidesariaren aldeko apus-tua egin dute. Alkate hauek, lotsagabeki, ez diete inolako jaramonik egin beren udaletako batzarrei EAJren interesak defendatzearen, eta horren ondorio da Ordiziako kasuan izan den gaitzespena eta Lazkaoko ezespena; eta ez dezagun ahaztu Beasaingo alkatea, Goiekiko lehendakari gisa, Plataformaren interesak defendatu beharrean, beste era bateko adierazpenak egin baititu. Baina argazkian

Etxegarateren auzia EAREN ikuspegitik

atera behar baldin bada eta beste gai batzuetan protagonista bezala agertu, hortxe egongo da Jauregi jauna.

BESTE KUKU BATEK joko liguke Goierriko EAJk hasieratik Plataforma onartu izan balu. Argi dago alderdiaren interesetara makurtzen denarengandik ezer gutxi edo batere ez espero genezakeela. Gipuzkoako EAJko batzarkide taldea izan da Plataformako Batzorde Betearazlearekin edo Iraunkorarekin bilerarik izatera makurtu ez den bakarra. Horrekin dena esanda dago. Eta gero esango dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan onetsi den dokumentuaren eragile izan direla. Zer espero genezake Gipuzkoako EAJrengandik 1998ko aurrekontueta-rako? Ezertxo ere ez...

EZIN DAITEKE zalantzan jarri Plataformak orain arte lortutako arrakasta, handia nahiz txikia, bere apolitikotasunari esker lortu dela, alegia, guztiok batzen gintuen helburu argi eta benetako hori nagusitu delako, eta horixe izan da, egun ere bada eta geroan ere izango da gure lokarri: N-laren bide-bikoizketak alderdien interesen gainetik egon behar duelako.

BELDUR GARA alderdi politikoren bat, hain zuzen ere H.B. ez ote den ari zenbait maniobra egiten beste norabide batean. Oso garbi azalduko dugu. Ez dugu beste Leitzarano bat nahi, koordinadora bata, ETA edota “gizarte eragile” izeneko inplikazio bitxiak, ezta antzeko beste ezer ere duenik. EAJk eta HBk Leitzarango trazaketa aldatzeko izenpetu zuten akordio edo itunaren ondorioz, obraren

kostua handitu egin zen 16.000 milioitatik 31.000 edo 32.000 ingururaino. Hori da egun N-1 errepidea oraindik bikoiztu gabe egotearen arrazoietako bat.

GARBI UTZI NAHI DUGU ez dugula onartuko horrelako manio-brarik, Plataforma sortu zenean bere helburu bakarra N-1 bidea bikoiztea zelako, eta ez dugula beste eskualde batzuekin istilurik bilatzen, ez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta ez inorekin.

GOIERRIKO E.A.K plataforman jokatu duen paperari dago-kionean, esan beharra dago EAJk jokatutako paperaren aldean oso desberdina izan dela. Nabarmena da, eta mundu guztiak daki, ez garela makurtu Aldundiaren tesiaren oinetara. Bestalde, ukaezina da gure barruan oso eztabaida latzak izan ditugula, eta are lagunarteko harremanak haustera ere iritsi garela. Baina eztabaida bat dagoenean beti gertatzen da hori; zenbaitetan asmo txarrez, beste batzuetan okerreko interpreta-zioengatik. Dena den, E.A.n oso harro gaude gai hori berbi-deratzen jakin dugulako, eta gainera, esan dezakegu une hauetan Aldundiaren tesiak oso desberdinak direla orain dela hamar hilabete zituenekin alde-ratuz.

AURRERANTZEAN, Goierriko E.A.k modu berean segituko du lanean Plataformaren barruan, N-laren bide-bikoizketa lortze-ko helburu garbiaz, eta horre-xegatik, uste dugu berebiziko garrantzia izango dutela 1998. urteko aurrekontuek. Konben-tzituta gaude halaber, Jose Ju-lian Irizar jaunak, Garraio eta Errepideetako Diputatuak, 1998, 1999 eta hurrengo urtee-tarako aurrekontu-kontusailen izendapenak tripartitoari pro-posatzerakoan, obra hori 2002. urtea amaitu baino lehen burut-zeko behar hainbateko zenbate-koak barneratuz egingo duela.



Jose Ramon Pato

Argi Psikologia klinikoa

Oporraldiak gure bizitza erritmoan aldaketa eragiten du. Gure gogo-aldartearen eta jokaeran eragina du. Nahasmen posible hauen egokitapenean, bi arazo mota nabarmendu nahi ditut.

Bada pertsona talde bat, beraien lanean gehiago inplikatuak, lanak estres arazoak eragiten dizkienak, eta oporrekin batera eta aktibitatearen erritmo gogorraren ezak, hutsune sententzioa sortarazi diezaiekete. Gogoa edo animoa deprimitzeraino irits daitezke eta ez die atse denaldiaz gozatzen uzten.

Bestetik, bada pertsona ezberdinen beste talde bat, hauek ez daude beraien lanaren menpe, oporraldia aprobetxatzen dute bizitzaz gozatu eta beste ardurez

ahazteko. Urtean zehar ezin egin ditzaketen aktibitateak eginez.

Lehenik eta behin, estresari dagozkion arazoak prebenitzeko garrantzitsua da denbora antolatzea. Zati bat lanerako bai, baina beste zati garrantzitsua familia, lagun, dibertsio, e.a. etarako utziz. Hau da, denbora gorde behar da erlajatzeko, harremanetarako eta dibertitzeko, gure bizitzako momentu atseginez gozatzeko.

Beti aurki daiteke lanetik erlaxatuko garen denbora. Ezertarako aprobetxatzen ez dugun denbora hil asko dugu, tentsioak erlaxatzeko, harremanak hobetzeko edo dibertsioak aurkitzeko erabil ditzakegunak.

Tarteka komenigarria da gure zenbait lan besteei ematea, saturaturik senti ez gaitez. Baita ere, baliagarria izan daiteke plan eta helburuak argitu eta zehaztea. Estresaturik egotearen

arrazoi garrantzitsu bat, egin dezakeguna baino gehiago egin nahi izatea da. Garai hau jardueren hasierarena da, planteamentu berriak egin eta hobeto antolatzeko garai egokia.

Bigarren motako pertsonen dagokienean, arazoak beste era batekoak dira. Pertsona hauei, nahiz eta etxetik kanpora edo etxean lan egin, asko kostatzen zaie lanera berriz itzultzea. Batez ere depresiorako joera duten pertsonak badira. Oporren ondorengo garai hau kritikoa izan daiteke. Eguneroko bizitzarako itzulera, bere ohizko arazoekin; egunak motzagoak; hotzaren etorrera; kasu batzuetan konpainia gutxiago izatea, e.a. Honek guztiak gogo-aldartearen aldaketak sortzen ditu eta prebenitzea oso garrantzitsua da.

Aldaketa honetara egokitze hainbat gauza egin ditzakegu. Aktibitate atseginak prestatzen jarraitu, txangoak, hitzaldiak, ikastaroak, famili eta lagun arteko bilkurak... Oporraldiaren eta lanaldiaren artean erabateko hausturarik ez egotea komeni da, gogo-aldartearen erori ez dadin eta lan erritmoa hartzen joan gaiten.

Gure gogo-aldartearen erortzen denean, gure egoeran aldaketa sor genezake, aurretik bizi izan ditugun garai atseginak gogoratuz. Orduan sentitzen genuena gogoratu eta erreproduzitzen saiatuz.

Interesgarria izan daiteke baita ere pentsatzea zein egoerek jartzen gaituzten tristeago, haserreago, melankoliatsuago. Eta zerek laguntzen duten egoera horiek sortzen. Garrantzitsua da beti osasun animiko ona mantentzea eta gure kabuz hobetzeko gauza ez bagara, beti eskatu genezake laguntza.



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

16 20 16

ORDIZIA

HIZKUNTZAK

- ✓ MAILA GUZTIAK ETA ADIN GUZTIAK
- ✓ AZTERKETEN PRESTAKUNTZA. (Hizkuntza Eskola Ofiziala, CAMBRIDGE ETA SELEKTIBITATEA)
- ✓ TALDE TXIKIAK (10 LAGUN GEHIENEZ)
- ✓ 97-98 KURTZO HASERA IRAILAK 15. **MATRIKULA DOHAIN**

Izen emate epea zabalik

Citroen kontzesionarioari eraso

Abuztuaren 31 goizaldean, 4 kaputxadunek Ordiziako Txindoki Citroen auto kontzesionarioa erasotu zuten. 5 auto berri kiskalita gelditu ziren erasoaren ondoren. Ezezagun batek Egin egunkariari jakinarazi zionez, eraso Juan Vicente Jauregizuria errefuxiatuaren entrega salatzeke eta, oro har, "frantses gobernuak euskal herritarren aurka duen jarrera errepresiboa" salatzeke izan zen. Kontzesionario honek jasaten duen bigarren eraso da, 1986. urtean zabaldu zenez geroztik. Bertako nagusiak adierazi duenez, kontzesionarioa marka frantsesekoa da baina bertatik sei familia euskaldun bizi dira eta horiek izan dira kaltetuenak.

Latasak 3. gradua

Ordiziako Jose Migel Lata-sa ETako kide ohiari 3. gradua eman dio berriro ere Kartzela Institutioetako Zuzendaritza Orokorrak. Era honetara, lotara bakarrik joan beharko du Langraizko kartzelara. 1995eko uztailaren 18az geroztik, 3. graduan zegoen Lata-sa, baina epaileek ukatu egin zieten. 10 kasurengatik dago Lata-sa kartzelan, tartean, Maria Dolores Katarain 'Yoyes' nor zen adieraztea.

Gero eta zabor gehiago sortzen dugu goierritarrok

Sasieta Mankomunitateak 1997ko lehen sei hilabete-koaren txostena kaleratu du. Horren arabera, hiri hondakin solidoen kopuruak gorantz egin du (%4,9). Joera hau aldatu nahian, martxoan zehar, gida berezi bat banatu zen Mankomunitateko biztanleen artean zaborren sortuntza gutxitzeko. Emaizak ikusita, ezinbesteko ikusten dute kanpaina berri bati ekitea.

Berreskuratze indizea dena den, gehiago hazi da; % 5,6 hondakin gehiago sortu bada ere, %10,4 hazi da material-berreskuraketa.

Paper, kartoi, beira eta ontzi arinen berreskuraketa indizea hobetuz doa: paper eta kartoi berreskuraketaren indizea % 40,5koa da; beirarena % 64,4koa; eta ontzi arinena %29,7.

Deba Garaia Mankomunitatek ekarritako hondakinak behar bezala tratatu ahal izateko, hondakinak tratatzeko makina trinkogailu berria ekarriko dute udazkenean. Uda partean, berriz, Sasieta zabortegean zenbait egokitze lan hasi dira; hala nola, tunel berria eta jaurtiketa-eremu berriaren drainaketa eta iragazkaitze lanak.

Ana Rosa Zubeldia

Hegoafrikan kotxe istripuz larriki zauritu zen Ana Rosa Zubeldia ordiziarra. Alkila-tutako auto batean zihoazen Zubeldia eta beste 4 emakume. Bat momentuan hil zen.

Auzolandegiak

Uda honetan bi auzolandegi izan ditugu Goierrin. Beasainen, Igartza jauregiko bi fatxada garbitu eta txukundu dira, baita inguruko baratzak ere. 40 gazte aritu dira lan horretan. Zegaman berriz, Altzibar auzoan dagoen Tellerialde teileria berri dute. XVI. mendekoa da teileria, Euskal Herriko zaharrena. Teilak eta ladri-

luak egiten ziren bertan, lehengaitzat buztina erabiliz. Beasaingo eta Zegamako Udalekin batera, Aranzadik eta Kutxak antolatutako auzolandegiak dira.

Juan Jose Aranburu

Plentzian jokaturako gazta txapelketan Juan Jose Aranburu zeraindarrak irabazi zuen, artisau eran egindako-etan.

Pello Ramirez

Biolontxelo jole ordiziarrek Josetxo Goia-Arribe saxo jole iruindarrarekin batera, 'Añamendi' izeneko diskoa kaleratu du. Horrekin batera, Nafarroako Santiago

bideko ermita eta elizatan hainbat kontzertu ari dira eskaintzen.

Txindoki

Abuztuaren 24an, Itsason-doko 61 urteko J.O.A. Txindokin istripua izan eta helikopteroz erreskatatu behar izan zuten.

Juan Karlos Cuadrado

Ordiziar mendizalea duela 15 bat egun desagertu zen Venezuelako Pico Bolivar mendian. Informazio hau idaztean ez zegoen Juan Karlos Cuadradoen beste berririk.



Koke Lasa

Ormaiztegiarra Himalaya aldean dugu Juanito Oñartzabalekin batera, Manaslu mendiaren tontorrera igozteko asmotan. Manasluk 8.163 metro ditu. Abuztuaren 26an abiatu zen espedizioa, eta tontorrerako saioa irailaren bukaerarako edo urriaren hasierarako espero dute.



☎ 88 55 00 ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua
Goierrri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA



Zaldibitar segalariak Alemanian

Aurten ere joan dira zaldibitar segalariak Alemaniako Enzklosterle herrian antolatutako sega txapelketara. Iaz irabazleak izan baziren ere, aurten, emakumezkoen taldea 4.a izan da eta gizonezkoena 5.a. Emakumezkoen taldea hauek osatu dute: Zaldibiko Aloña Mendizabal, Agurtzane Azurmendi eta Aloña Jauregi, Idiazabalgo Aloña Galarraga eta Ibarako Izaskun Larrarte. Gizonezkoen taldea: Oiartzungo Bixente Mitxelena, Lazkaoko Juanmari Agirrezabala, Zaldibiko Mikel Jauregi, Joseba Arrese, Iñaki Izagirre eta Xanti Lizarraga, Gaintzako Mikel Garmendia, Olaberriko Xabier Lasa, Oreindaingo Jexuxmari Ormaetxea eta Arriarango Xabier Lasa. Argazkia iazkoa da.



Aitor Garmendia

Itsasondoar txirrindulariak Galiziako Itzulia irabazi zuen abuztuan. Aurtengo denboraldian irabazten duen 2. itzulia da.

Iker Sukia

Europako junior mailako txapelketan, Iker Sukia ataundar pisu jaurtitzailea laugarren izan zen. Bronztzeko dominatik 4 zentimetrora gelditu zen, bola 17,19 metrora boteaz.

Iñaki Azurmendi

Gipuzkoako Hirugarren mailako aizkolari txapelketa irabazi zuen uztailaren 26an Iñaki Azurmendi arriarandarrak. Txapel honekin batera, bigarren mailarako txartela lortu du Azurmendik.



GOIERRITARRAren aldeko zozketa

GOIERRITARRA aldizkariak duen diru premia piska bat arintzeko, zozketa antolatu du. 200 pezetaren truke, 300.000 pezetako bidaia egiteko aukera izango du saridunak. Zozketa urte bukaeran egingo da Notarioaren aurrean. Irailaren

10eko Ordiziako azoka berezian errifak eta kamisetak salgai izango dira. Urte bukaera bitartean, hainbat lekutan ere izango duzue errifak erosteko aukera. Adi egon! GOIERRITARRA aldizkariak denon laguntza behar du.



Josetxo Imaz

Beteranoen Munduko Atletismo Txapelketan, 300 metro hesietan, 3.a izan zen Josetxo Imaz. Horrekin batera, bi aldiz jarraian hautsi zuen Espainiako 300 metro hesietako marka. Ordiziako Txindoki Atletismo Taldeko kidea da Imaz.

Mikel Antia

Realak fitxatu duen Mikel Antia jokalaria jatorriz goierritarra da. Aita Ormaiztegiak eta ama Zegamakoa ditu.

Lefevre

Ordiziako txirrindulari proba Laurent Lefevre frantziarrak irabazi zuen.

Artzain txakur txapelketa

Datorren igandean, irailak 7, goizeko 11.00etan, Gipuzkoako artzain txakur txapelketa izango da, Mandubiako gainean.

Kars pista Olaberrian

Olaberrian kars pista finkoa eraiki dute. Prycaren gainkaldean dago. Pistako ibilbideak 1.100 metro ditu eta zabaleran 8 metro. Munduko txapelketak jokatzeko baldintzak betetzen ditu zirkuituak. Andres Vilariño, Juan Egeruela, Manuel Iturrioz, Iñaki Olano eta Xabier Iturrioz dira promotoreak. Hurrengo alean izango dugu informazio gehiago.



FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 88 89 80

ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

Mikel Laso: "Legorretako koadrilan bezala sentitzen naiz Athleticen"

Aurten Bilboko Athletic taldeak fitxatu duen legorretarra umetan denbora guztian futboleko ibiltzen zen, baina, serioxeago Beasaingo futbol taldean hasi zen. Handik Realeko jubeniletara, Sansera eta 17 urterekin Realera. 2 urte eskas egin ondoren 19 urterekin Madrilera joan zen. Bertan 6 urte egin ditu.

- Talde bakoitzak zer suposat du zuretzako?

- Pertsonalki amets bat bezala izan da nire futbol bizitza. Txikitik futboleko jokatzen hasten zarenean, Realean jokatzea izaten da ametsa. Izugarria izan zen Realean jokatzea. Gero Madrilera joatea, berriz, baina pentsa Madrilaren aritza! Aurretik planteatu ere egin gabe neukan, Madrilaren aukeratuak bakarrik joaten zirela pentsatzen bainuen. Madrilaren oso ondo egon naiz. Mailarik altuenean jokatzen da han. Bilbon orain, Realean bezala nago. Ilusio berdinarekin etorri naiz, ume txiki bat bezala, eta oso gustura nago.

- Zergatik etorri zara Athleticera eta ez Realera?

- Real beti ibili izan da nire atzetik, baina agian Athletic iritsi da momentu justuan. Orain arte Realaren interesatuen denean, Madrilaren gelditu, eta jokatu egin izan dut. Udan normalean ze-



"Pertsonalki amets bat bezala izan da nire futbol bizitza".

renda beltz guztietan egoten nintzen, talde asko nire atzetik... Baina Madrilaren gelditu eta jokatu egiten nuen. Aurten, ordea, oso gutxi jokatu dut. Athletic etorri da, aukera eman dit, eta berehala onartu nuen. Etxean bezala nago, Legorretatik ordubetearen hemen nago. Jokalari guztiak ezagutzen nituen eta primeran nago.

- Madrilaren nahiz eta ez gehiegi jokatu, han gelditu izan zara.

- Agian prentsak ere zerikusia izaten zuen. Niri entrenatzaileak ez zidan sekula ere esaten nirekin ez zuela kontaktatzen. Prentsan atera bai, baina entrenatzaileak alderantzizkoa esaten zidan. Azkenean denboraldi osoan jokatzen nuen. Aurten bai, nahiko gutxi jokatu dut. Jokalari batentzat jokatu gabe egotea gogorra da, eta ni 25 urterekin han geldituz gero, nahiz eta gustora egon, kirol mailatik ikusita, ez neukan aukerarik.

- Zer sentitu zenuen Real Madrilera aldageletan sartu zinenean?

- Prentsak zerikusi handia dauka. Pertsonai batzuetaz hainbeste hitz egiten da, baina ni lehenengo momentutik primeran egon nintzen, asko lagundu ninduten. Aldageletako giroa besteetan bezalakoa da. Izar asko egon bai, baina denok lan berdina egiteko gaude.

- Athleticen zer espero zenuen aurkitzea eta zer aurkitu duzu?

- Espero onena aurkitu dut. Hemengo aldageletan sartu eta ematen du Legorretako koadrilan nagoela. Denak ezagutzen nituen, eta lehenengo momentutik oso ondo nago. Laguntalde bat aurkitu dut.

- Legorretarrek eta realzaleek nola hartu dute?

- Pentsa koadrilako guztiak realekoak dira, Legorretan ere bizipahiru bakarrik dira Athleticok... Baina normala da bakoitzak bere taldea dauka. Ez nautela animatu-

ko esaten dute, baina bi ekipoen arteko pikea normala da. Hitz txikitik esaten dutela pentsatzen dut. Niretzat onena nahi dute, baina kasu honetan normala ikusten dut eurek Realaren animatzea.

- Gaur egun zer da futbola: kirola, negozioa, ikuskizuna?

- Futbola kirola da, baina kirolek gero eta gutxiago dauka. Kirola negozio bat da, telebistak sartu dira, eta gero eta diru gehiago mugitzen da. Denilson 6 mila milioengatik fitxatu du Betisek eta 65 milako klausula jarri diote. Normalak ez diren zifra batzuetaz hitz egiten da. Futbolak jende asko mugitzen du eta diru asko dago.

- Herrietako taldeen harrobi lanak geroz eta gutxiago balio al du?

- Geroz eta gutxiago eta geroz eta zailagoa daukate. Bigarren maila oso indartsua da, lehenengo mailan lekuri ez duena, bigarrenera jaisten da. Orduan 18-19 urteko gazteak lehenengo taldera igo behar duenean, jokatzeke garaia duenean, oso aukera gutxi izaten ditu, oso kasu berezietan bakarrik. Entrenatzaileak gauza asko jokatzen ditu... harrobiko lan hori gero eta zailagoa da.

- Atzeritarrik bai ala ez?

- Ni beti egon izan naiz atzeritarren aurka. Garbi dagoena da, gaur egun, futbola dagoen bezala, atzeritarrik gabe zerbait lortzea oso zaila dela. Athleticen egin duena aurten, UEFA-n sartzea, handia da.

- Futbolari bezala zein da zure ametsa edo helburu?

- Ametsa da momentu honetan, Athleticekin titulu bat irabaztea. Realean nengoenean zaila bazen ere, UEFAn sartu ginen, zerbait lortu genuen. Madrilen ere 2 Liga irabazi ditut, Errege Kopa, Super Kopa... Etapa berri honetan amets politena hori izango litzateke, tituluren bat irabaztea. Bada-kigu oso zaila dela gaur egun titulu bat irabaztea.

- Zer falta zaizu 'crack' bat izateko?

- Gauza batzuk hobetzea, noski. Baina agian jarraipen bat izatea. Madrilen jokatu dut, baina gehiegirik ez. Zenbat eta gehiago jokatu, konfidantza gehiago hartzen da. Espero dut aurre denboraldi ona egitea eta jokalaria on horretara iristea.

- Athleticen lekua ziurtatua al daukazu?

- Ez dakit, zaila da, jokalaria oso onak daude eta. Nik jokatzeari nahi dut eta horretarako lan egingo dut. Aurre denboraldian izan dudana fibra haustura txikiarekin atzerapausoa izan dut. Baina lehenengo ondo jarri nahi dut eta gero ea entrenatzaileak konfidantza piska bat ematen didan. Jada sendatuta nago.

- Zer moduz Luis Fernandez entrenatzailearekin?

- Oso ondo. Ikusten da jokalaria izan dela eta orain dela gutxi utzi duela. Harreman berezia du. Momentu batzuetan beste jokalaria bat dela dirudi. Baina zelaian, gogorra izan behar denean, gogorra izaten da. Harremana ez du galdu eta badaki futbol mundua nola doan eta hori jokalariorik gustatu egiten zaigu.

- Futbolari batentzat zer da gogorra?

- Gu pribilegiatu batzuk gara, gustatzen zaiguna egiten dugu, jende gutxi ari da gustatzen zaion lanean. Ez dago gauza gogorrik, futbol mundutik dena gustatzen zait. Fama hemen askoz ere hobeto eramaten da. Madrilen denak ezagutzen zaituzte. Buelta bat ematera atera eta autografoak firmatu gabe ez zara gelditzen. Hasieran agian gustatu egiten da autografoak eskatzea, ezagutzen nautenaren seinale. Baina gero, nekatu egiten zara, askotan intimitatean zaudenean, molestatu egiten dute. Baina ondo eramaten da.

- Legorretara itzultzean nola moldatzen zara?

- Koadrilarekin, borroka eta borroka. Aurrekoan lagun batek esan zidan: okerragoa ezin huan egin. Lehenengo Madrileran! baina bueno, txaketa aldatuko diagu. Baina orain Athleticera!



- Zein da ezagutu duzun futbolariarik onena?

- Asko ezagutu ditut. Bat esatekotan agian, Laudrup. Hierro eta Raul ere oso onak dira, bakoitza bere postuan.

- Markatzea gehiena kostatu zaizuna?

- Onesimo, Valladoliden zebilenean. Lehenengo zatian erotu egin ninduen.

- Entrenatzailearik onena?

- Ez dakit, entrenatzaile guztietatik ikasten da zerbait. Baina onenak, agian, Toshack eta Valdano.

- Jokalaririk zikinena?

- Stoichkov. Oso txarra da. Mina egitera joaten da.

- Legezkoena?

- Laudrup. Denekin ondo konpontzen zen. Butragueño ere oso fina zen.

- Momentu honetan munduko talderik onena?

- Juventus. Bi urte jarraian titulu guztiak irabazi ditu.

- Jokalaria bezala, egun zoriontsuena? Eta triste-ena?

- Zoriontsuenak Realean debutatu nuenean eta Madrileran lehenengo Liga irabazi nuenean. Tristeena, Tenerifen Liga galdu genuenean. Oso urte txarra izan zen. Madrileran iritsi eta tituluak besterik ez genituela irabaziko ideiarekin joaten zara. Baina ez da horrela. Urte guztia lehenengo joan, azkeneko partidua 2-0 irabazten joan...

- Euskal selekzioa noiz?

- Zoritarrez gutxitan jokatzen dugu, urtean behin. Proiektuak badaude, baina klubek eragozpen asko jartzen dituzte, egutegia oso bete izaten baitugu. Argi dagoena da, jokalariorik oso gustura jokatzen dugula euskal selekzioarekin.

- Legorreta, Donostia, Madril ala Bilbo?

- Ni Legorretakoa naiz. Oso ondo bizi izan naiz lau lekuetan. Gero auskalo non biziko naizen. Baina hori bai, Euskal Herrian gustatuko litzaidake bizitzea.

- Futbola utzitakoan zer?

- Oraindik ez daukat oso garbi. Futbol munduan jarraitzea gustatuko litzaidake, mundu hauxe gustatzen zaidalako. Batez ere mutil txikiekin gustatuko litzaidake lan egitea edo begirale bezala. Entrenatzaile edo prestatzaile fisiko lana ez zait gehiegi gustatzen.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



☎ 88 96 67

ZALDIBIA



Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Diarbide Albizu



AGRIA

SABO



STIHL

Jonsered

Banatzaile ofiziala

Beasain-Durango errep. 18 area (Tejeria zaharra)
ORMAIZTEGI Tfnoa-faxa: 16 15 15

MGAR

Argiztapenak

Berrikuntzak orokorrean

Iluminazio denda ireki berria

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

Urdaneta, 41

ARMAIRU

ENPOTRATUAK

NEURRIRA

☎ 161606

ORDIZIA



**ORDIZIAKO GARAGARZA
PLAZA ETA GOEN
KALEAREN ARTEAN:**

✓ Berehala eraikuntza berria:
apartamentu, eta neurri ezberdinetako
etxebizitzekin

✓ Lokal komertzialak

KALITATE GORENEKO ERAIKUNTZA

PROMOTOREA:

GOI-ETXE S.A.

Filipinas, 13 - behea

☎ 88 49 50

ORDIZIA



INEKO

sake
KOPERATIBAK

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu eta ongarri gama berezia

ITZIAR - DEBA (Gipuzkoa) ☎ 199300 - 199330 Faxe: 199270

TOYOTA GOIERRI AUTOAK



TOYOTA CARINA E

2.150.000 pezetatik

3 URTE
GARANTIA

24 ORDU
ASISTENTZIA

ORDIZIA

☎ 88 20 05 - 88 10 73

Euskal astea Ordizian

**Irailak 5, ostirala:**

19:00etan: Jose Luis Zumea artistaren erakusketa-aren inaugurazioa.

22:00etan: Altsasuko Aintzindari dantza taldearen saioa, Plaza Nagusian.

Irailak 6, larunbata:

10:00etan: Txirrinduen ginkana umeentzat, Joxe Miel Barandiaran plazan.

22:00etan: Dantza taldearen, Plaza Nagusian.

Irailak 7, igandea:**Jubilatuaren eguna:**

9:00etan: Trikitilarien goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30etan: Trikitilariak alaituko dituzte kaleak.

14:30etan: Jubilatu eta pentsionisten bazkaria, Be-

ti-Alai pilotalekuan.

Ondoren: Dantzaldia Jela-laxo taldearen eskutik.

Irailak 9, asteartea:

17:30etan: Elkarleen arteko VII. Sukaldaritza lehiaketa, Plaza Nagusian. Ordu berean Goierriko III. Odolki onenen arteko lehiaketa eta dastaketa.

Irailak 12, ostirala:

22:00etan: Beasaingo Udal Antzerki Tailerraren saioa: 'Bost duroko opera', Herri Antzokian.

Irailak 13, larunbata:

11:30etatik 1:30etara eta 16:00etatik 20:00etara: Jolas-parkea, Joxemiel Barandiaran plazan.

11:00etan: Sukaldari gazteen I. Lehiaketa, Plaza

Aparteko azoka**Irailak 10, asteazkena:**

9:00etan: Ordiziako txistulari, Tolosako dultzainari eta Zumarragako trikitilariak alaituriko goizeresia.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruitu, barazki eta lepagorri oilaskoen txapelketa eta perretxikuen erakusketa.

10:30etan: Aurtengo eztiaren aurkezpena, Udaletxean.

12:00etan: Fruitu, barazki eta perretxiku lehiaketetako sari-banaketa Joxe Miel Barandiaran plazan. Ondoren bertso-saioa, dultzainari eta trikitilariak.

13:00etan: Gazta txapelketako sari-banaketa Beti Alai pilotalekuan.

17:30etan: Profesionalen arteko eskuzko pilota partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

19:00etan: Bikoteen arteko sueltoko dantza txapelketako kanporaketak, haurren kategorian, Plaza Nagusian. Ondoren, Edu Muruamendiaraz dantzariaren koreografia berria.

19:30etatik 21:30etara: Trikitilariak alde zaharrear.

Nagusian. **20:00etan:** Sari-banaketa, Plaza Nagusian.

22:30etan: Bertsolariak Herri Antzokian: Mikel Aranburu, Xabier Narbarte, Xabier Sukia, Alaitz Sarasola, Naikari Gabilondo, Ibai Esoain eta Alfonso Jimenez. Sarrera dohainik.

Irailak 14, igandea:**Erromeria Oiangun:**

9:30etan: Ordiziako txistularien kalejira.

11:00etan: Oiangun,

erromerian parte hartuko dutenentzako hamaiketako. Bertsolari gazteak.

12:00etan: Lazkao-Txiki IV. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa.

12:00etan: Haurren sueltoko dantza txapelketa.

13:30etatik 2:30etara: Trikitilarien jardunaldia.

16:00etatik 17:00etara: Haurrentzako jolasak eta toka txapelketa.

19:00etatik 21:00etara: Trikitilariak.



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
© 16 02 48
ORDIZIA

GONARTE
ENMARCACION

- KOADROAK ● ISPILUAK
- ARGAZKI-MARKOAK
- IRUDIAK ● GRABATUAK

Urdaneta, 52

Tfnoa. eta faxa: 16 18 71
ORDIZIA

ARANTXA

MERTZERIA - LENTZERIA

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3 ☎ 88 76 15
ORDIZIA

ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE

Urdaneta, 42 - behea
☎ 88 19 50 ORDIZIA

Ordiziako azoka berezian eskualdeko ganaduak leku berezia izaten du Garagartza plazan.

Lehiaketak eta erakusketak izaten dira bertan.

Azken urteetan friso arrazako ganaduen saria Lazkaomendiko Iztueta elkarteak jaso izan du; pirenaika arrazakoena, berriz, Idiazabalgo Pedro Katarainek. Eurekin izan gara abere sektorea gertuagotik ezagutzeko asmotan.

"Ikuiluan jana kontrolatuta, esnea beti berdin ematen du"

Lazkaomendiko Iztueta elkarteak, Iztueta Azpikoa eta Iztueta Garakoa baserriek osatzen dute. Esnetarako behiak, pinttoak edo friso arrazakoak, dituzte, 90 behi eta 70 bigai. Maria Jesus Insausti eta Eusebio Garmendiarekin izan gara.

Egunean bi aldiz jezten dute ganadua, goizeko eta iluntzeko 7.00ak aldera. Egunean 50 litro esne kentzen dien behirik badute. Etkez etxeko salmenta egiten dute batez ere Lazkao, Beasain eta Ordizian, eta gainerakoa Iparlat esne biltegitira eramaten dute.

Azpiegitura aldetik, berrikuntza ugari egin behar izan dituzte, beti ere esne produkzioa handitzearen. Ganadua bereiztu egiten dute, "esne gutxiago ematen duena ikuiluan edukitzen dugu eta besteak larrean. Ikuiluan jana kontrolatu egiten da, eta esnea beti berdin ematen du. Kalitatea ere hobea izaten da. Esne

gehiago kentzeko sistema bila aritzen gara beti", dio Eusebiok. Behi bakoitzak zenbaki bat eta txip bat dauka. "Behi bakoitza programaturik dago, jan kopuru zehatza ematen zaio ikuiluan", gaineratu du. Jetzilekuan "12 behi batera jezten ditugu. Handik, batere ikutu ere egin gabe, tankera eramaten da eta handik Iparlata edo plastikoetara, kalean saltzeko".

Etorkizuna beltz

Sektorearen etorkizuna beltz ikusten dute Iztuetakoei. "Momentu honetan haragiarekin konparatuz esnea hobeto dago, nahiz eta esnea ere oso baju egon", zehaztu du Eusebiok.

Maria Jesusek adierazi digunez, orain 10 urtetik hona izugarri jaitsi da salmenta. "Ez dakit jendeak nahia go duen ala ez jakako esnea, komodoagoa behintzat bada. Jendeak komodidade-ari begiratzen dio, nahiz eta

bestea hobea izan". Eusebiok gaineratu duenez, "jendeak ez du esnerik bereizten, txuria izan dadila eta kitto. Esnearekin supermerkatuan izugarriko ganga egoten denean, denak esne jakak bizkarrean hartuta ateratzen dira. Guk 47-49 pezetan saltzen diogu esnea Iparlati. Donostiako supermerkatu handi batean 59 pezetan ari dira saltzen. Pentsa tratamendu guztiak eginda, ezinezkoa dela prezio horretan saltzea. Galera garbia da. Auskalo zer den,

baina jendeak jakak eramango ditu etxera".

Kontsumitzaileen jaitsierarekin batera, geroztik eta gutxiago dira esnetarako behiak hazten dituztenak. "Esne-behi gutxiarekin ez dago bizitzetik. Orduan, haragitarra pasatzen dira eta baserria mantendu egiten dute. Orain arte baserri gehienetan batez ere esne-behiak egon dira. Gizonak kalean lan egiten duelako eta esne-behia oso lotua denez, larre-behiak sartu dituzte."

Iztueta elkarteak

Lau lagunek egiten dute lan Iztueta elkarteak. Baserriaren etorkizun bakarra elkartean omen datza. "Guk elkartuta, opor batzuk behintzat hartzen ditugu. Gaixo jartzen bada ere ez da arazorik izaten. Bakarra dagoen lekuan hori ez da posible. Elkartuta, bizi baldintzak hobea dira. Lehenengo auzolana, elkarlana da baserriaren etorkizuna. Adibidez, belar bolak egiteko makina hiru baserriaren artean erosi genuen. Makina oso garestia da eta baserri bakar batek etekin gutxi aterako diona", dio Maria Jesusek. Dena den, elkartzearen kontzientziarik ez du baserriarrek. "Zenbait esperientzia gaizki ateratu dira eta beti errezelo handiz begiratzen dira. Deskonfiatua da baserriarrek".



INPRIMATEGIA
URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26

88 04 46 Faxa: 16 14 07

ORDIZIA



LUBERRI
Loradenda

- ✓ Andregai lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Ezkontza opariak

Euskal jai zoriontsuak!
J.M. Barandiaran, 3 16 04 79 ORDIZIA

"Pirenaika arrazako behia euskara bezain zaharra da"

Idiazabalgo Aritzeder base-riko Pedro Katarain pirenaika arrazako behiak hazten ditu. Haragitarako behia da pirenaika edo herri-behia. Sari ugari irabazi du Pedrok, baita Ordizian ere. Pirenaika arrazako 50en bat buru ditu eta etxe inguruko larreetan ibiltzen dira.

Bertako arraza da Pirenaika Katarainek zehaztu digunez. "Euskara bezain zaharra dela esaten dute. Euskal Herrian Pirenaika arrazako behiei herri-behiak deitzen zaie". Ganadu gogorra da eta Euskal Herriaren orografiarako egokia. "Etxe inguruetako soroak gorritu egiten ziren eta ganadua mendian ibiltzen zen. Ganadu gogorra da eta mantenu txarrarekin ere eutsi egiten dio. Gaur egun batez ere, larreetan ibiltzen dira".

Kalitatezko haragia

Haragi oso ona ematen omen du pirenaikak, "hemengoetan kalitaterik onenakoa". Oreatua da konformazio, hazte eta haragi gustoaren aldetik. Frantziatik etorritako blonda eta limousin arrazako behiak ere badira, baina bere haragia lehorrakoa da. "Suizea ere asko egon da baina izkutatu egin da. Behi mixtoa da suizea, baina esnetan pinttoak eraman dio eta haragitan pirenaikak".

Esnetarakoak diren behiak meheagoak izaten dira, "jaten duen guztia esnera joaten zaio. Esnea produzitzeko makina da. Haragitarakoek bizkar eta iztar zabalagoak ditu, haragi gehiagorekin".

Berez larre-behiak susara maiatza-ekaina-uztailan jartzen dira. "Loreak sortzen dira eta belarrak indarra orduan edukitzen du. Eguzkiak indarra ere orduan izaten du. Otsail-martxo inguruan izaten du txahala. Udaberrian partez udazkenean umea eduki nahi izanez gero aldatu egin behar da zikloa. Nik normalean umeak udazkenean egiten dituztela dauzkat. Hobeto ateratzen naiz. Eli-kaduran zertxobait gehiago



gastatzen dut, baina txekorra saltzeko garaian udaberrian txekor gehiegi izaten direnez, zailagoa izaten da saltzean. Aurten ere stock handia izan da. Haragi prezioa udazkenean piska bat igo egiten da. Lehiaketa gehienak ere udazkenean izaten dira eta behi ederrena, umea egin aurretik egoten da".

Txahalak 6-7 hilabeterar-

te, amarekin ibiltzen dira, esnea edanez. "Gero banandu egiten ditugu amarengandik. Pentsua eta belar lehorra ematen diogu. Urtebete ingurura kentzen ditugu txekorrak. 500 kilo bat izaten dituzte, bizirik".

Labela

Batagatik edo besteagatik, geroz eta haragi gutxiago jaten dugu. Behi-eroen gaiak ere izan du zerikusirik. "Behi-eroen gai horrekin labeldun haragiak gora egitea espero zen, baina berdintsu saldu omen dute. Horrek beti eragiten du, eta beti txarrerako izaten da. Gaur egun ez dago distantziarik eta haragia edozein lekutatik ekartzen dute", dio Pedrok.

Labela "jan behar duenari haragi sana jaten ari dela ziurtatzeko" da. "Prezioak zertxobait gora egitea ere espero zen, baina momentuz eskas doa. Labela eduki edo ez eduki, berdina da, prezio berdinean saltzen dugu", esan du Katarainek.

Arraza garbiaren alde

Pirenaika bertakoa da, baina arraza nahasketa handiak izan dira. Arraza garbitu eta arrazaren hobekuntza genetikoak lortzeko helburuarekin Euskadiko Pirenaika elkarteak sortu da. Lan horretarako, zezenen aukeraketa oso garrantzitsua da, "behiari hazi ona jarritz gero, ondorengoa ere hobea jaioko baita". 1960rarte zezenak zuzenean jartzen zuen hazi, orduan hasi ziren erabiltzen hazi errefrigeratua eta kongelatua. Pedro Katarainek abantailak ikusten dizkio inseminazio artifizialari. "Bide honetatik zezenik onenaren hazi jartzen da, nahiz eta gehiago kostatu behia ernai gelditzen. Hazi kongelatua oso kantitate txikia izaten da eta oso momentu berezian jarri behar zaio, behia ernai geldituko bada, susa bukaeran, iluntze aldera".

Punta-puntako arraza lortu nahi du Pedrok, guztiz garbia. "Batzuk arraza garbikoen aldeko apustua egin dugu, baina beste batzuei haragi produkzioa besterik ez zaio inporta".



HERRI BATASUNA

Ordiziar eta bisitari guztioi euskal jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 16 16 74 - 16 13 28 BEASAIN
Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 ORDIZIA



● Eztiaren aurkezpena

1997ko kanpainako Gipuzkoako eztiaren aurkezpena egingo da aurten ere azoka bereziaren barruan. Udaletxeko batzararetoan egingo da, goizeko 10.30etan. Meteorologia ikuspuntutik oso urte eurtsua izan da, batez ere uztaila eta abuztua. Hori dela eta, txilardun eztiaren uztia ugari izatea espero da.

● Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketako irabazleak

Eusebio Igartzabal, Josean Ormazabal eta Nikolas Zeberio osatutako epaimahaiak erabaki duenez, hauek dira Argi Berri elkarteak antolatu duen VI. Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketako irabazleak:

Gaztetxoetan: 1goa Ataungo Aitzol Munduate; 2.a Beasaingo Irati Goikoetxea; eta 3.a Beasaingo Ainara Zubeldia.

Gazteetan: 1goa Ekaitz Goikoetxea; 2.a Lekeitioko Naroa Ogando; eta 3.a Ordiziako Alaitz Sarasola.

Helduetan: 1goa Hernaniko Jon Eizmendi; 2.a Lazkao Xabier Narbarte; eta 3.a Zarauzko Nikolas Zendoia.

Sari-banaketa, irailaren 14an, igandean, egingo da, eguerdiko 12.00etan, Barrena kultur etxean.

● Sukaldari gazteen lehiaketa

Ordiziako Udalak, Larrun Arri elkarteak eta Castillo Hotela, I. Sukaldari Gazteen Lehiaketa antolatu dute irailaren 13rako, Euskal Festen barruan. Plaza Nagusian izango da, goizeko 11.00etan hasita.

27 urte baino gutxiago dituzten sukaldariei zuzendua dago, sukaldaritza eskolaren baten matrikulatua dagoen edo egon denei. Gehienez 12 sukaldarik hartuko dute parte. Partehartzaile bakoitzak laguntzailea izan dezake.

Prestatu beharrekoa: Antolakuntzak aurreko egunean derrigorrezkoa den plateraren berri emango du (haragiaren ingurukoa izango); lehenengo platera eta postrea, aukerakoak izango dira. Plater bakoitzetik 4 errazio prestatu behar harko dira.

Iluntzeko 8.00etan izango da sari-banaketa. Castillo Hotela emango ditu sariak: lehenengoarentzat 50.000 pezeta, bigarrenarentzat 30.000 pezeta eta orogarria; hirugarrenarentzat 20.000 pezeta eta orogarria. Gainerako partehartzaileek 10.000na pezeta jasoko dute.

Dena den, lehiaketaz gain, produktuen erakusketak eta dastaketak ere izango dira Plaza Nagusiaren inguruan.



● Bertso-jaialdia

Argi-Berri elkarteak antolaturik, bertsolari gazteen jaialdia antolatu da irailaren 13rako, gaueko 10.30etan, Herri Antzokian. Nikolas Zeberio izango da aurkezlea. Bertsolariak: Mikel Aranburu, Xabier Narbarte, Xabier Sukia, Alaitz Sarasola, Naikari Gabilondo, Ibai Esoain eta Alfonso Jimenez. Saioa dohainik izango da.



Zure edertasuna zaintzen dugu!

- ✓ Solariuma
- ✓ Depilazioa
- ✓ Garbiketak
- ✓ Makilaia

Aloska

EDERGINTZA - USAINDEGIA

Domingo Unanue Plaza, 2
88 24 10 ORDIZIA



BIÑASPRE

Uda ondorengo azalberritze tratamenduak gure estetika zentruan, BIÑASPRE.

Aurpegiaren dizitiraren sekretua egunero azalaren zaintzan erabiltzen diren 5 minutuetan dago.

Zure azalaren beharrei egokitutako tratamendu pertsonalizatuak. BIÑASPRE LURRINDEGIAN.

Kontsulta ezazu!

K. Nagusia, 8

88 13 37

ORDIZIA



JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA

Jai zoriontsuak denoi!

- ✳ Tratamendu bereziak: liftinga, mikropigmentazioa, behin-betiko depilazioa eta makilaje bereziak.
- ✳ Opariak: perfumeak, kosmetika eta osagarriak

J. M. Barandiaran pl., 3 88 28 88 ORDIZIA

MIAMI
kafetegia
Etxezarreta kalea
ORDIZIA

OIANGU
T A B E R N A
♦ ♦ ♦
☎ 88 30 03
Euskalerrria z/g ORDIZIA


Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak
☎ 88 00 35 ORDIZIA

ALDASORO
Taberna - Jatetxea
Festa onak pasa!
Urdaneta, 27 ☎ 88 00 23 - 88 11 40 ORDIZIA

ALAIA
Taberna
Kafetegia
*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*
Urdaneta, 2
ORDIZIA

ARANTXA
taberna
**PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK**
☎ 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

AMONANE
★
Nagusia, 30
ORDIZIA

ORLEGI
TABERNA
ORDIZIA

ALBAPA
JATETXEA ORDIZIA
GOIERRI KALEA • TELF. 88 41 30


TXINDOKI
TABERNA


✗ Pintxo bereziak
✗ Ogitartekoak
✗ Plater konbinatuak
✗ Eguneroko menua
✗ Karta
✗ Ospakizunetarako
menu bereziak
☎ 88 40 49 Etxezarreta, 3 ORDIZIA
*Ondo
pasa
festetan!*

Beasaingo Igartza auzoko jaiak asteburuan

Gero eta ospe handiagoa hartzen ari diren Beasaingo Igartza auzoko jaiak gaur bertan hasiko dira. Aurten berrikuntza ugari sartu dituzte antolatzaileek. Besteak beste, autokrosa eta arku-tiraketa. Loinazko ermittan egiten den meza eta erromeria, berriaz, astelehenean egingo da, arratsaldeko 18:30etan. Egitarau zehatza duzue jarraian:



Irailak 5, ostirala:

19:00etan: Buruhandi eta txistularien irteera. Txupinazoa.

19:30etan: Poteo trikitilaria.

24:00etan: Trikizio musika taldearekin dantzaldia.

Irailak 6, larunbata:

10:00etatik 13:00etara: Igeriketa frogak.

15:30etan: Autokrosa Indarreko zelaian.

15:30etan: Marrazki lehiaketa.

16:00etan: Mus txapelketa.

16:30etan: Arku-tiraketa txapelketa, futbol-zelaian.

17:00etan: Toka eta igel txapelketa.

17:30etan: Haur jolasak.

19:00etan: Poteoa.

23:00etan: Jator taldearekin dantzaldia.

24:00etan: Mozorro lehiaketa.

24:30etan: Dantza lehiaketa.

6:00etan: Gantzontzilo lasterketa.

Irailak 7, igandea:

10:00etan: Arku-tiroketa.

12:30etan: Buruhandi irteera.

13:00etan: Poteo herrikoa, Koskola txarangarekin.

14:30etan: Bazkari herrikoa.

17:30etan: Bertso-saioa.

18:30etan: Herri-kirolak.

19:30etan: Dantzariak.

20:30etan: Poteoa txarangarekin.

22:00etan: Pobre de mi-a.

Irailak 8, astelehena:

18:30etan: Meza eta ondoren erromeria, Loinazko ermittan.

AKELARRE taberna

Festa onak pasa!


Igartza Oleta, 12 ☎ 88 23 12
BEASAIN

ANZIZAR Taberna

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8 ☎ 88 43 17 BEASAIN

VOLVO



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

ARKATZA

- ➔ Eskola materiala
- ➔ Fotokopiak
- ➔ Bideo Kluba
- ➔ Kiniela seilaketa

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 22 09
BEASAIN

JULIAN MUJICA

Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak



Igartza Oleta, 10
☎ 88 01 96
BEASAIN



KALITATEKO
EUSKAL OKELA



DILASKOTEGIA

URDAITEGIA

Festa onak pasa!

SALTAMENDI

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 86 46
BEASAIN (etxekoa) 16 14 37



**KAFETEGIA
GOZOTEGIA**

Igartza Oleta, 14
BEASAIN

BEASAIN

Liga hasi da S.D. Beasainentzat

S.D. Beasainek denboraldi berri bati ekin zion pasa den igandean. Hori bai, zorte gutxiarekin, lehen norgehiagoka 1-2 galdu baitzuen Osasunaren aurka.

2.B mailan jokatuko dute 6. denboraldi hau berezi xamarra izango da beasainarentzat. Izan ere, filosofia aldaketa nabarmena erabili zuelako agintaritzak pasa den denboraldi amaieran. Aurrekontua gutxitzea erabaki zen, eta honen ondorioz sortuko ziren jokalarien hutsuneak betetzeko, inguruko jokalariek gazteak fitxatzea.

Espero bezala, 8 jokalariek garrantzitsuek taldea utzi dute, guztiak ere Goierri kanpokoak. Eta geratu direnekin eta fitxaketei esker, goierritarrez bete zaigu taldea. Plantilako 21 jokalarietatik 15 gure eskualdekoak dira.

Iaztik jarraitzen duten Toural, Cortes, Eneko eta Jakes Gibelalde, Santamaria eta Ramirez beasaindarrak; Iraola eta Petxarroman ordiziarrek; Sarriegi eta Eskisabel lazkaotarrak; eta Aitor Leturia segurarra. Hauek aparte, Alavestik Edu Saiz zaldibitarrek eta Egoitz Sukia ataundarrak iritsi dira; eta talde jubeniletik Jon Garmendia beasaindarra eta Jon Torres ordiziarra igo dira.

Goierritarrez gainera, plantila osatuz Gastesi ibarratarra eta 5 jokalariek berri izango dira: Jauregi (Logroñes), Agirre (Erreala), Del Campo (Endesa), Gabarain (Tolosa) eta Iriarte (EHU). Azken hau erdi beasaindarra, Salva Iriarteren semea baita.



Aurten ere 'Navarro' izango da futbol taldearen entrenatzailea.

Aldaketa honek, taldearekiko identifikazioa erraztu dezake eta galdutako ikusleak Loinazera itzulaz. Dena den, ikusi beharko da kirol aldetik behar adina maila ematen duen talde gazte honek (batzbesteko adina 22 urtez azpikoa da).

Beste urtebetez entrenatzaile karguan jarraitzen duen Manuel Diez 'Navarro', taldearen filosofia aldaketa onartzen du, baina arriskua ere ikusten dio: "Jende gazte asko dugu, es-

perientzi gutxiarekin. Askorentzat 2.B maila berria da. Horregatik oraindik lan asko egin beharko dugu, denak behar bezala ezagutze eta talde osoa mailara egokitzeko". Guzti honegatik helburu xumeak ezartzen ditu: "maila mantentzea, eta ahal izanez gero taula erdiraino iristea, ahalik eta arrisku gutxien pasatuz".

Saskibaloia

Herriko beste taldeak ere lanean dira dagoeneko, nahiz eta hauentzat liga hasiera oraindik urruti xamar dagoen.

Honela BKLko saskibaloia taldea abuztu amaieratik prestatzen ari da, urriaren 12an hasiko den denboraldiari begira. Iaz maila autonomikoa galdu ondoren, aurten maila probintzian ariko zaizkigu normalean. Dena den, goiko mailan hutsunerik gertatuko balitz, hori betetzeko eskaera egi-

na du BKLk. Beraz, aukera txikiren bat badago maila autonomikora itzultzeko.

Taldeari begira, Josean Erauskinen jarraituko du entrenatzaile lanetan. Eta plantila, oraindik itxi gabe dagoen arren, hurrengo gizonetan oinarrituko da: Jose Ignacio, Luis Eduardo Pascual, Ibon Ramirez, Gorka Alartia, Jon Lekuona, Jose Ramon Toural, Egoitz Badiola, Iñigo Iraola, Mikel Peña eta Javi Lopez.

Bestalde, talde seniorrez gainera, beste 4 talde ateratzeko asmoa ere badago: jubenil eta kadeteetan, neska eta mutil talde bana.

Eskubaloia

BKLren talde seniorra pasa den asteartetik lanean da. Hauek ere maila galdu zuten iazko denboraldian, eta ondorioz, 2. maila autonomikoa jokatu dute aurten. Urrian hasiko zaizkie partidua ofizialak, eta 12 taldek osatutako ligan, bi aurrenekotan egon beharko dute 1go mailara itzultzeko.

Entrenatzaile, Jose Mari Aierbe izango dute, eta delegatu lanetan Xabier Chasco izango da. Plantila ondoko 14 jokalariek osatuko dute: Marcos Otegi, Elias Bustinduy, Jon Odriozola, Josean Olano, Joseba Urbano, Eneko Aierbe, Marcos del Rio, Mikel Mujika, Marcos Martin, Roberto Begue, Oscar Soto, Victor Asensio, Iñigo Odriozola eta Arratetik itzuli den Toni Martin.

Eta eskubaloian ere, jubenil eta kadete taldeak izango dira. Hori bai, mutiletan bakarrik.

Aitor Arrue

Motzean

● **Aitor Letamendiak**, Trikitilari Gazteentzako Euskal Herriko txapela eskuratu du. Txapelketa hau duela 15 egun jokatu zen, Zeanurin (Bizkaia).

● **Loinatz abesbatzak** abuztuan Ingalaterrara egin zuen bidaia erabat arrakastatsua izan zen. Emandako 3 kantaldietan lan ederra egin zuten, datorren urterako beste gonbite bat jasoz. Gainera, eginbeharrak aparte, oporraldia ere oso gustoko izan zuten abesbatzako partaideek eta beraiekin joandako laguntzaileek.

● Pasa den astelehenetik eta irailaren 14rarte, Udalak subentzionatutako **euskara barnetegia** burutzen ari da. Bertan, lehen hezkuntza B eremuan burutu, eta DBHa euskara hutsean egin nahi duten ikasleak biltzen dira. Laugarren urtea du barnetegi honek, Donostiako Euskal Begirale Eskolaren ardurapean.

● **Beasaingo Ikastolatik** jakitera eman digutenez, DBHko lehenengo maila Beasainen bertan emango da, Lazkaora joan beharrik gabe, matrikulazioak gora egin baitu. Irailaren 18an hasiko da ikasturtea.

GABIRIA

Oroitz Maizek lehenengo saria Portugalgo akordeoi lehiaketan

Uztailaren 25 eta 26an burutu zen Portugalen 'III. Semana Internacional do Acordeao. II. Concurso Iberico' deituriko lehiaketa eta bertan Portugal eta Espainiako 28 gaztek parte hartu zuten, denak ere 13 eta 14 urtekoak eta Euskal Herriak 7 joan ziren.

Lehenengo kanporaketan bi pieza jo behar izan zituzten bat derrigorrezkoa eta bestea librea, hain zuzen ere, 'Poema' deituriko Myaskov autorearen pieza jo zuen Oroitzek eta bigarren egunean hiru pieza denak libreak: Allegro, Aldapeko eta Preludio y Fuga.

Bi saio hauen ondoren puntuazioak eman zituzten eta lehenengo saria Oroitzek lortu zuen 818 puntuekin eta gainera erraz asko, izan ere bigarrenak 650 lortu baitzituen. Saritan 45 mila pezeta inguru, keramikako platera eta kuadro bat eman zizkieten. Sariak sari gure zorianak beroena

Oroitz eta etorkizun baina duela ez da dudarik.

Hainbat emaitza

● Txirrindu-lasterketa

Joan zen abuztuaren 15ean jokatu zen Ormaiztegitik Gabiriako txirrindu lasterketa eta bertan, ohi den bezala, herritarrek hartu zuten parte. Guztira 44 txirrindulari atera ziren eta horietatik Jon Bikendi Igarzabalek egin zuen lasterketarik onena, bigarrenari hamar segundo kenduz. Bigarren Josu Elgarrestak egin zuen eta hirugarren Jesus Andolak.

Emakumeei dagokienez, lehenengo emakumea Bakarne Peñagarikano izan zen eta berak ere jaso zuen ongi merezitako saria.

● Bola lehiaketa

Herriko jaiak direla eta antolatu ohi den bola lehiaketan Segundo Aranburu izan dugu aurtengoan txapeldun argi eta garbi, izan ere, Andra Mari eta San Roke egunekoaz gain San Roke Txiki



Gazta lehiaketako irabazleak: Nikolas eta Amelia.

ki eguneko saioa ere berak irabazi baitzuen.

Dena den, punturik gehien lortu zituen Idiazabalgo Andoni Katalina gaztea izan zen 67rekin eta ondoren J. Antonio Ugarteburu, honek ere 67 puntu lortu zituen. Gazteen artean Haritz Maiz izan genuen txapeldun.

● Toka lehiaketa

Lehen bi egunetako Jose Antonio Ugarteburuk irabazi zuen eta herritarren arte-

an Joxe Maizek. San Roke Txikiko saioa, berriz, Santi Aramendik irabazi zuen eta ondoren Juan Mari Ariztimuño sailkatu zen.

● Gaztarik onena Nikolas Igarzabalena

Aurten sei lagunek aurkeztu dituzte euren gaztak eta horietan onena Nikolasena izan da epaimahaikoen iritziz; ondoren Ameliarena eta hirugarren Patxirena.

Gabino Murua

ZERAIN

Irailaren 8tik 14ra bitartean izango da aurtengo kultur astea. Asteazken zehar hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak izango dira Kultur Etxean, iluntzeko 8.30etan, eta astebururako bertso-afaria eta jubilatuen eguna antolatu dira besteak beste. Hona hemen eguneko eguneko egitaraua:

Irailak 8, astelehena:

Gaia: Hizkuntzen elkarbizitza Europan. Hizlaria: Mikel Zalbide.

Irailak 9, asteartea:

Gaia: Zergatik Zerain. Hizlaria: Elixabete Garmendia.

Irailak 10, asteazkena:

Gaia: Osasuna eta elikadura. Hizlaria: Julian Bereziartua.

Irailak 11, osteguna:

Gaia: Zerain Dezagun Fundazioa. Hizlaria: Zerain proiektua.

Irailak 12, ostirala:

Diapositiba emanaldia, 'Itsasoari begira', Joxe Ramon Agirren eskutik.

Irailak 13, larunbata:

16:00etan: Marrazki lehiaketa.

18:00etan: Buruhandiak, sari banatzea eta merienda izango dira.

21:00etan: Bertso-afaria Ordiziako bertso-eskolako bertsolariekin. Afalondorena trikitilariak alaituko dute.

Irailak 14, igandea: Jubilatuen eguna:

12:00etan: Meza Nagusia Zegamako Orkatz abesbatzak eta Etxeberria eta Agirre bertsolariek lagunduta.

Ondoren: Bertsolarien eta Intxausti anai-arrebak trikitilarien saioa plazan.

14:00etan: Bazkaria. Bazkal ondorena bertsolari eta trikitilariak alaituko dute.

OLABERRIA

San Joan Txiki eguneko afarian ia 200 lagun

Abuztuaren 29an, ostiralean, San Joan Txiki eguna ospatu zen herrian. Ekitaldi ugari izan ziren eta lehengo urteko egitarauarekin gonbaratuz gero, bi berrikuntza ikus ahal izan ziren: arku-tiraketaren erakusketa saioa eta jazbana trikitixarekin. Urtero legez meza izan zen goizeko lehen ekitaldia eta bertan izan ziren Jon Sarasua eta Xabier Euzkitze bertsolariak bertsoak eskainiaz eliztarrei. Segidan, frontoira gerturatutako jendeak hamaiketako dastatzeko aukera izan zuen, lehen aipatutako bertsolarien bertsoekin gozatuz.

Arratsaldeko egitaraua haurren jolasekin hasi zen eta herriko plazara gerturatu ziren umek arratsalde atsegina igarotzeko aukera izan zuten. Ordu bete berandua go helduen txanda izan zen eta hauek ere joko ezberdinetan jokatzeko aukera edukitu zuten, nahiz eta parte-hartzaile kopurua txikia izan giro polita egon zen. Balda baserriko Gregorio Mujikak jaso zituen sari gehien. Honela, bolo txapelketan 8 gizonen parte



hartu zuten eta hoberena Gregorio Mujika izan zen, bigarren Garikoitz Arrieta eta hirugarren Juan Mari Mujika. Toka txapelketan aldiz, 14 gizonen parte hartu zuten eta Joakin Ugarte-mendiak eraman zuen lehen saria, bigarrena Iñigo Urkiolak eta jarraian Gregorio Mujikak. Igel jokoa 7 parte-hartzaile izan ziren eta oraingoan ere garaile Gregorio Mujika izan zen, bigarren Felix Garmendia eta hirugarren Iñigo Urkiola.

Herri kirol saioan, herriko taldea nagusitu zen Zegamaren aurka; nahiz eta hasieran zegamarrak irabazten hasi, pixkanaka abantaila olaberritarrentzat izan zen. Arratsaldeko ekitaldi

hauetan ikuslego kopurua exkaxa izan zen baina herri afarian, berriz, lehengo urteetan baino jende gehiago izan zen, ia 200 pertsona. Egitarauari amaiera emanez Alaitz eta Maider Oiartzungo trikitilariak izan ziren herriko plazan. Gaztez gainezka egon zen plaza baina bertaratutakoek dantza egiteko asmo gutxi agertu zuten nahiz eta kantariak animatuta egon. Goizeko 3.30ak aldera amaitu zen kantaldia San Joan Txiki egunari amaiera emanez.

Udal bilkura

Pasa den uztailaren 23an Udalak osoko bilkura arrunta egin zuen, baina bertako xehetasunei buruz hitz egin baino lehen, aipatzekoa da

Nekazal eta Kultur zinegotziek, Javier Agirrek eta Iñigo Urkiolak, beraien agerrialdiak euskara egingo dituztela. Izan ere, Udaletxe-ko osoko bilkura guztietan hizkuntza nagusia gaztelera da, zinegotzi guztiek euskaraz ez dakitelako. Uztailako osoko bilkuran hainbat gai jorratu zen baina hona hemen batzuk:

- LIDL supermerkatu alemaniarra irailean hasiko da eraikitzen Iurreko gunen industrialean, Prycatik metro gutxira.

- Kasko auzoan etxeak eraikitzeke proiektua aurrera doa.

- 1989tik Bake Epaile den Juan Odriozolak lan berean jarraituko du eta ordezkotako lanak Juan Luis Oterok beteko ditu.

- Udalak 3 elkarteei eman die diru-laguntza: Atzegiri 45.210 pezeta; Gurutze Gorriari 51.600; eta Gizakia Helburu edo Proyecto Hombrieri 118.400 pezeta.

- Azkenik aipatu jubilatuen eguna irailaren 28an izango dela.

Nagore Goiburu

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordua: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22

Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

Argazkiaren honen erabilerak mugatuta.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

LAZKAO

Saskibaloi taldea lehenengo mailara

Oporrak ia gehientzat amaitu diren honetan herriko hainbat iharduera normaltasunera itzultzen ari dira, esaterako, herriko kirolariak beraien entrenamenduekin hasi dira denboraldian zehar emaitzak ahalik eta onenak izan daitezzen.

Entrenatzen hasi diren kirolari hauetako batzuk saskibaloi jokalariai dira. Aurten gainera erregionaleko lehenengo mailara igo berriak direnez sekula baino ilusio haundiagoz dihardute entrenamendu saioetan.

Iaz bigarren mailan zeudelarik denboraldi txukuna egin zuten bostgarren postua lortuz. Zoriturrez, ordea, lehenengo lauak bakarrik igo ziren mailaz. Lehenengo mailan jokatzeko aukera zeharkako bide batetik lortu dute, Ordiziako bigarren taldearen ordezkari jokatu dute maila horretan.

Ordiziak badu beste talde bat maila altuago batean, baina bigarren taldea osatzeko arazoak izan zituzten iaz eta aurten berriaz beraien lekua lazkaotarrei uztea erabaki dute. Horretarako akordio batera iritsi dira bi taldeak, Lazkaoko saskibaloi taldea Ordiziakori lotuko zaio seguruenik eta ordainetan taldearen maila igotzeko intentzioarekin Ordiziako jokalariai batzuk Lazkaoko taldean jokatzeko nahia dago.



Zabor bilketa tasa

Irailaren 30ean amaituko da zabor bilketa tasa ordaintzeko epea. Epea iritsi baino lehenago egin beharrekoa honako hau da, etxera iritsi zaizun ordainketa abixuarekin Kutxako bulegora joan eta bertan aurrez aipatutako tasa hori ordaindu.

Aurten beraz, maila oneko saskibaloiak gozatzeko aukera izango dugu herrian, ziur gaude gogoz saiatuko direla herriko gazte hauek aurten lortutako maila mantentzeko, hori baita aurten go urterako duten helburua.

Aisialdirako begirale ikastaroak

Lazkaoko Udala eta Goiek antolatuta, aisialdirako begirale ikastaroak burutuko dira aurten Lazkaon. Ikastaro hau, haur eta gazteekin aisialdi ekintzak antolatzen dituzten pertsonentzat egokia izango da guztiz.

Esan behar da halere, ikastaro hau burutzeko gutxiengo partaide kopuru bat

izango dela, kopuru hau 10-12 gaztetakoa izango da. Ikastaroak Donostiako Eulka Begirale Eskolak emango ditu eta esan guztiz euskaraz izango direla.

Ikastaro honek 200 ikas-tordur izango ditu, urrian hasi eta martxo-apiril arteko asteburuetan banatuko direlarik ikastordur guztiak. Ikastaro hauetan eskuhartzeko 18 urte 1997an beteak izan beharko dira.

Ikastaro honek dirulaguntzak dauzka eta amaieran gainera titulu ofizialak banatuko dira. Ikastaro honetan interesa duenak Udaleko Euskara Zerbitzuan galde dezake lanegunetan edo 886408 telefonora deituz.

Gerriko Ikerlan Sariketa

Aurreko ale batean aipatu genizuen bezala martxan da VIII. Gerriko Ikerlan Sariketa. Sariketaren oinarriak GOIERRITARRAN azaldu dira dagoeneko, baina, gogorazi nahi dizuegu parte hartu nahi duenak oraindik aukera ezin hobea daukela, epea martxoaren 18an amaitzen baita. Informazio gehiago nahi duenak 160282 telefonoan eska dezake. Sari bikainak daude eta parte hartzeak merezi du.

Ikusentzuneke eta hitzaldiak

Irailako lehen hamabostaldian bi ikusentzuneke antolatuko dituzte herrian, Udalak, Maizpide Euskaltegiak eta Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek.

Irailaren 10ean: "Gipuzkoako jaiak. Uda." izenburupean Jabier Juanesek emango duena izango da lehena. Maizpide Euskaltegian iluntzeko 9.00etan.

Irailaren 17an: "Baso tropikala" izenekoak izango da bigarrena eta Jabier Fernandezek eskeiniko du Udaletxeko Areto Nagusian iluntzeko 9.00etan.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu



RENAULT

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

AGENTZIA

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ORDIZIA

Jubilatuentzat ekintza ugari irailerako

Irailerako hainbat ekintza antolatu dira Adineko Pertsonen Elkarteak. Egun handia irailaren 7an izango da, euskal festen barruan. Lagunekin ondo pasa eta nahikoa dantza egiteko aukera izango dute Beti Alai pilotalekuan izango duten bazkarian eta dantzaldian.

Guztia ez da festa izango ordea. Bost ikastaro antolatu dituzte irailetik aurrera. Oroimena trebatzeko ikastaroa: irailaren 15ean hasi eta 6 astez, astelehenetan, 17:30etatik 19:30etara.

Etxe-gozogintza ikastaroa: irailaren 18an hasita abendura arte izango da, ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara.

Mantenimendu-gimnasia: irailaren 15ean hasita, urte osoan, astelehenetan 16:00etan.

Abesbatza ere irailaren erdialdean hasiko da entseioak egiten. Bertan parte hartu nahi dutenentzako informazio bilera irailaren 11n, izango da goizeko 11.00etan, jubilatuetan.

Joga ikastaroaren hasiera urrian izango da.

Herrikan kanpo joateko aukera ere izango dute jubilatuek. Atzo Aralarko San Migelera joan ziren. Irailaren 16tik 18ra bitartean, berri, Ebroren delta ikustera joango dira.

Su Gorrikoen protesta

San Joan suaren inguruan egiten festa antolatzen du Su Gorri taldeak, duela 26 urte-tik hona. Aurten, Su Gorri taldeak salatu duenez, alkateak San Joan suaren inguruko festa debekatu ondoren, 200.000 pezeta arteko isuna jarri dio Su Gorriko partaide



Su Gorri taldeko belaunaldi ezberdinak.

bati. "San Joan sua, erabateko festa herrikoia da eta bertan parte hartzeko deialdi zabala egin ohi da, edonork bertan gurekin batera festa honetan gozatu dezan. Lehen izpiritu txarrak sutara botatz etxea garbitzen zuten bezala, San Joan bezperako suan gizarte honetako zikenkeria guztiak erre ohi ditugu", dio Su Gorrik.

"Dirudienek alkateari ez zaio gustatzen bere kontrolpetik kanpora baitago eta garai bateko inksidore bat

bezala festa honekin akabatu nahian, duela 3 urte dirulaguntza ukatzeari ekin zion, baina hala ere, saltzen ditugun errifen bidez eta tabernarietako emandako dirulaguntzari esker aurrera jarraitzen dugu ilusio handiz ohitura zaharrei eutsiz", gaineratu du Su Gorrik.

Firma bilketa egiten ari dira, batetik debekua eta isuna kentzea eskatzeko, eta era berean "herriar festa bat denez, dagokigun dirulaguntza berreskuratzeko".



Loradenda

- ✓ Ezkontzako lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Koroak
- ✓ Lora apainketa mota guztiak.

Euskal jai zorientuak!

Geltokiko Kioskoa ☎ 88 98 83
ORDIZIA



JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

Presio altuko solariuma



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA



Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!

☎ 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

IDIAZABAL

Oporretatik bueltan, herria ari da piskanaka egunerokora itzultzen. Idiazabal. Herri Eskolan irailaren 8an hasiko da ikasturte berria. Lehen bi asteetan goizez, 9.00etatik 13.00era, izango dira klaseak eta irailaren 22tik aurrera ohiko ordutegian hasiko dira.

Herri Eskolak emandako datuen arabera 125 haur matrikulatu dira aurten. Iaz baino 10 lagun gutxiago izango da beraz. 18 haur Beasaingo Loinazpera joan dira eta 8 dira Aita Iparragirre eskolan estreinakoz ikasturtea hasiko dutenak. Irakasleei dagokienez, bi berri izango dira aurten Herri Eskolan.

Ikasturte honetako nobedade handiena ordenadoreen gela berria da Juan Manuel Garzia zuzendariaren esanetan. Horretaz gain iaz martxan jarri zuten Hara Hara aldizkariak aurrera segiko du, aldizkari honen helburua "Gurasoei eskolan gertatzen denaren berri ematea da", zuzendariaren esanetan. Eta informazioa zabaltzeko aurten ere Zirika

irratian saioa egingo dute eskolakoek. Asteazkenean eguerdiko 12.30etatik aurrera.

Kiroldegiko eskaintza

Kiroldegiak ikasturte honetarako zerbitzu berriak eskainiko ditu. Irailetik aurrera martxan izango da gimnasio berria. Zortzi makina jarri dituzte soinketa egin nahi duenarentzat.

Eskola kiroleko begiralea izateko ikastaroa ere antolatu dute kiroldegian, irailan eta urrian egingo da. Izena eman eta informazio gehiago nahi duenak irailaren 16a baino lehen Udaletxe, Kultur Etxe edo Kiroldegira jo dezake.

Urteroko soinketa saioak irailaren 22an jarriko dira martxan. Ondoko ordutegiak antolatu dituzte: astelehena, asteazkena, ostirala goizean 9:00etatik 10:00etara. Astelehen, asteazkean eta osteguna iluntzean 19:00etatik 20:00etara. Astearte eta osteguna, 20:00etatik 21:00etara. 3. adinekoentzat ordutegia hau da: 14:30etatik 15:30etara.

Ikasturtearen hasiera

Arantzazura erromes

Herriko talde batek antolatuta, irailaren 7an Arantzazura joateko autobusak jarri dira. Herrian betidanik izan da Arantzazura joateko ohi-tura. Garai batean oinez ere joaten ziren urteto sasoi ho-

netan. Orain berriro ere ohi-tura gal ez dadin bidaia antolatu da irailako lehen iganderako.

Xabier Urteaga


Erlojua berrituta

Kanpotik eta itxuraz kanpandorreko erlojua betikoa da. Udan kanpoan izan denak ordea orain somatuko du erlojuan egindako berrikuntza. Ordu laurdenero jotzen ditu kanpaiak eta eguerdian angelusa entzuten da.



Arg.: Fotoetxe

Beste berrikuntza bat ere bada, gaueko 10.00etatik hasi eta goizeko 8.00ak arte erlojuak ez du hotzik ateratzen. Herriko historian garrantzi handia izan du kanpandorreko erlojuak, XVII. mendean erloju zaintzaile bat izan zen herrian, eta isun edo multa ere jarri zioten ordularia behar bezala ez zaintzeagatik.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritara

Larunbat arratsalde irekita

Erakusketako eta faxa: 889113 - mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN

IBAI-ONDO




ZURGINTZA

ALTZARIAK

P.V.C. ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

880543 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**


88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

ATAUN

Mendi ibilaldi neurtuaren 30. urteurrena



Ataun Kirol elkarteak eta Oargi Troskaeta Kultur elkarteak antolatutako, mendi ibilaldi neurtua izango da irailaren 14an, igandean. Aurtengo edizio 30.a da.

Bi ibilbide izango dituzte partehartzaileek aukeran: ibilaldi nagusia 4-5 ordukoa eta aukerakoak 2 ordu t'erdikoa. Ibilbide hauek ez daude lehiaketa kutsuz antolatua. Bide edo leku berriak ikusi eta ezagutzeaz gain, lagunartean izadia lagun dela, une atsegina igarotzea da helburu.

San Gregorioko plazatik abiatuko dira ibilaldiak. Ibilaldi nagusikoak goizeko 8.00etan eta aukerako ibilbideak goizeko 9.00etan. Izen-ematea orduerdi lehenago egin beharko da. Tal-

deak 2 edo 3 lagunekoa izan beharko du. Ibilbidearen nondik-norakoak adierazita egongo dira. Partehartzaileen artean ez da inongo sailkapenik egingo, eta amaieran partaide guztiei oroigarria emango zaie.

Kiroldegiko oharra:

● Gimnasioa martxan da dagoeneko. Orduak hartu nahi izanez gero, dei 180384 telefonora.

● San Gregorioko mantenimenduko soinketa irailaren 15ean hasiko da. Izena Juanitaren dendan eman.

● San Martinen helduentzat soinketa irailaren 16an hasiko da, 18:00etan. Izena Kiroldegian eman, 18 03 84.



San Gregorioko festak iganderarte

Irailak 5, ostirala:

12:00etan: Koadrilen topaketa Kantauri txarangarekin.

14:00etan: Koadrila bazkaria.

17:30etan: Erreka jaitsiera eta jolasak.

24:00etan: Etzakit taldea. Goizaldera baratxuri zopa.

Irailak 6, larunbata:

13:00etan: Luntxa plazan trikitilariekin. Ondoren potea auzoan zehar.

16:00etan: Afizionatuen txirrindu proba.

19:30etan: Amaiera eta sari banaketa. Ondoren plazan Joxemi Martis tenorea-rekin kantaldia.

20:00etan: Eate abesbatza, frontoian.

22:00etan: Kontzertua Artadin: 'Fist Fucking' eta 'Geroh'.

24:00etan: Maixa, Ixiar eta Maider taldea. (Mozorro gaua izango da).

Irailak 7, igandea:

10:30etan: Meza Nagusia. Ondoren salda plazan.

12:00etan: Afizionatuen pelota partiduak.

13:30etan: Asto karrera.

18:00etan: III. Trikitixa txapelketa.

20:00etan: Sari banaketa.

Ondoren: Herriko gazta eta ardo dastaketa eta, goizalderarte trikitilariak.

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



● Iturgintza
● Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 88 40 57 ☎ 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

SEGURA

Inoiz baino herritar gehiago futbolean

Hastear dagoen 97-98 denboraldirako bada zenbait nobedade futbolari dagokionez. Azpimarragarriena, Igo mailako errejonaleko taldean arituko diren jokalariek herritarrek, 9 hain zuzen. Andoni Etxeberria erretiratu bada ere, Eduardo Alda-nondok, Iker Garmendiak, Jon Insaustik, Jokin Etxeberriak, Eñaut Telleriak eta Jon Ander Hombrek bertan jarraituko dute. Hauei gehitu behar zaizkionak, iaz Ordizian aritutako Xanet Garmendia, futbolera itzuli den Joxe Mari Izagirre eta jubeniletatik igo den Oskar Terra dira. Jubenilen ohorezko mailan 4 herritar izango dira: Iban Bera-sategi, Xabier Areizaga, Uritz Gonzalez eta Ibai Telleria. Igo mailako infantiletan ere espero da herritarren bat edo beste; hauek aste honetan hasi dira entrenatzen eta arduradunek, 11, 12, 13 eta 14 urteko segurarrak animatu nahi dituzte futbolean has daitezen. Kirol arduradunek diotenez, aurtengo denboraldirako dituzten taldeak ikusita, errejonalean eta kadeteen helburua mailaz igotzea da eta jubenil eta infantilena mailari eustea.

Beste berrikuntza bat, 5. taldearena da, eskola mailako infantilena; hurrengo urtean infantilen talde nagusian aritzeko prestatuko direnena.

Azken berrikuntza, berriz, laguntzaile taldearena. Dozena erdiren bat lagun prest azaldu baitira tabernako lanetarako eta sarreraren salmentetarako.

Bazkide kanpaina: Futbolariekin batera, ordea, diru sarre-rarik inportanteena den bazkide kanpaina dator. Helburua, iaz lortu ziren 100 bazkide inguru gainditzea da. Iazko prezio berean eskainiko dituzte bazkide txartelak: bakarkako abonua 4000 pta eta bikoteak 6000. Kontu korrontea emana dutenei



Igo mailako errejonaleko taldea iazko denboraldian.

hilaren erdi aldera egingo zaie kobraketa.

Igo jardunaldia: Errejonalek eta jubenilek datorren astean hasiko dute denboraldia. Errejonalek: Aloña Mendi-Segura. Jubenilek: Segura-Euskalduna, irailaren 13an, 16:00etan. Kadeteak eta infantilak 21ean hasiko dira.

Bola eta toka

Abuztuaren 15ean, Gabiriako festetako bola saioan, Antonio Agirre geratu zen lehena. Egun berean eta Aiako saioan, 18 urteko Ugaitz Agirrek 2. postua lortu zuen.

Tokan, Antonio Agirre 4 tokitan geratu da txapeldun. Uztailean Aztiriko jaietan, abuztuaren 9an Gabiriako Kortan 24 botalditatik 13 jota, 15ean Gabirian 24tik 16 jota eta 24an Itsaso-Ezkion 12tik 6 jota. Abuztuaren 30ean, 2. gelditu zen Brinkolan 24tik 13 jota.

Peregrinazioa

Abuztuaren 30ean, Otzaurtetik irtenda, mendiz joan ziren peregrinazioan Arantzazura 50en bat herritar. Jaien, herritar gehiago inguratu zitzaizkien; bertan meza entzun eta bazkaldu ondoren 2 autobusetan etorri ziren herri-rra. Txistulariek eta agintariek germanenetik elizaraino lagundu zituzten.

Odol-ematea

Zapatuan, irailaren 6an, 17:00etatik 19:00etara egingo da Osasun etxean aurtengo 3. eta azken odol-ematea. Segurako Odol Emaileen Elkarteak, odol emaile guztiei eta batez ere jende gazteari dei berezia egiten die odola ematera ager daitezzen.

Jubilatuak

Irailaren 7an ospatuko da jubilatuen eguna herrian. 11:45etan eliza aurrean elkartuta, txistulariak eta dantzariak lagun dituztela, meza izango dute 12:00etan. Ondoren, bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean. Iaz 2 autobus osatu ziren. Gaisoei tarta eta txanpaina bidaliko zaie etxera.

Irailaren 12an, berriz, eskursioa izango dute. Goizez Azpeitiako trenaren museoa ikusi ondoren, Zarauzko Kuliska jatetxean bazkalduko dute, arratsaldean Orio eta Donostia aldera joateko. Bidaia, 3.000 pezeta (bazkaria barne). Izen ematea irailaren 6an eta 7an, iluntze partean, Atsedeen Elkarteak.

Usakume tiraketa

Txoritegi Elkarteak antolatuta, irailaren 7an, goizez (10:00-13:30) eta arratsaldean (15:30-19:00) burutuko da Aizkoeta Erdiko zelaian, XV. usakume ti-

raketa. Izen ematea, 3.000 pezeta (usakumeak sartu gabe), bertan egin behar da.

Gazte Asanblada

Gazte Asanbladak Urbiako San Inazio jaietan antolatu zituen aktibitateen diapositiba emandia irailaren 12an, 22:00etan eskainiko da, eguraldi ona bada plazan eta bestela Kultur Etxean.

Auzo afaria

Irailaren 13an, Arantzazu bariokoek, plazatik bolalekurainokoek, bertan bizi, lan egin edo jabetzaren bat dutenen arteko auzo afaria egingo dute portikopean, 20:00etan, auzoan hildakoen alde emango den mezaren ondoren. Menua, urterokoa, entsalada eta bakoitzak etxean egindako oilaskoa. Afalondorena auzoko txistulari eta akordeoilariek alaituko dute.

Lourdesera egunpasa

Lourdesera egingo den 7. egunpasa, irailaren 14an izango da aurtengoan. Autobusa goizeko 6:30etan irtengo da eta gaueko 23:00ak aldera itzuli. Informazioa eta izen ematea germanenean, 80 10 03 telefonon.

Chiz postuak

Irailaren 14an, goizeko 10:30etan hasita egingo da Segurako Udaletxean Gipuzkoa eta Arabako partzoneriko chiz postuen subasta. Enkaltetik kanpo gelditutakoak partzoneriko 6 herrien artean zozketatzekoak ziren asteazkenean, hilaren 3an. Segurarrei 12 postu dagozkie eta 140ren bat ehiztari herritarren artean zozketatuko dira. Horretarako datorren astean egin behar da izen ematea Udaletxean.

Joseba Telleria

Josune Laguardia Ordiziatik Dominikar Errepublikara

Jaiotzez zaldibitarra bada ere Ordizian bizitakoa. 95eko uztailan joan zen lehenengo aldiz oporetan, han orain bere senarra dena ezagutu zuen. Orain dela 3 urte ezkondu ziren, han. Bisadua eta lortu zuenean bere senarra hona etorri zen bizitzera urte t'erdiz. "Guretzat errezagoa da hango girora moldatzea berarentzat hona baino. Ni ziur nago nere senarrak hemen lan bat izango balu gustorago egongo zela. Baina ez genuen lanik aurkitu berarentzat. Han jendea kalean bizi da, eta horretara ohitu denarentzat hemen egun guztia etxean sartuta egotea oso gogorra da. Han berri, biok lan egiten dugu, eta ondo kontopontzen gara", azaldu digu Josunek. Hemen ikastolako idazkari bezala lan egiten zuen. Eszedentzi batekin dago eta oraindik ez du erabaki han geratu edo ez, "garaia iristen denean erabakiko dut".

Puerto Plato eta Sosuaren artean bizi da. "Bertan giro jatorra dago, dominikanoa. Sosuako hondartza oso polita da baina dena alemaniarrez eta italiarrez josita dago. Kanpoko jendea joan da, diru dextentekin inbertitzera, asko mafioso eta delikuentek dira eta korrupzio handia dago. Aberatsak geroz eta abera-



tsago dira eta pobreak geroz eta pobreago. Orain gasolina igo da eta horrekin garraio publikoa, janaria eta dena, soldatak ezik. Hango oinarritzko janaria arrosa da, babarrun batzuk eta behi haragia".

Hainbat arazo

Errepublika dominikarreko eguneroko bizitzatuz luze hitz egin zigun Josunek. Bertako arazo bat haitiarrena da. Irla berdinean dago eta muga zentimetro batzuetako ura duen erreka bat da, "300 pesotan 3 eguneko baimena ematen die poliziak eta bertan geratzen dira. Noizean behin poliziak erredada egiten du eta berriro Haitira bidaltzen dituzte. Haitiarren eskulana oso merkea da, eraikuntzan eta batez ere azukre kainera biltzen. Oso lan gogorra da. Haiti munduko lekurik pobreena da, izugarritz-

ko miseria dago. Dominikarreko haitiarrak ez dituzte ondo ikusten, zikin joaten direlako, usain txarra dutelako..."

Lana badago langileak dira, baina lan asko egin eta gutxi ordaintzen dietenez, ez daude ados horrekin eta alferkerian sartzen dira. Josune ez da asko ateratzen ordu asko lan egiten du eta ondoren etxean egotea gustatzen zaio.

Hondartzan lan egiten zuenean euskaldun asko ikusten zituen, ikurrina haundi bat zuen jarrita eta euskaldunak pasatzen zirenean bertan geratzen ziren. Baina orain aparteago dago, motorrak eta Jeep-ak alokatzeko negozioa dute berak eta senarrak.

"Polizia kalean eske ibiltzen da, turista sagratua da, ez dute bat gelditzen. Bertakoak berriz, bai, batez ere asteburuetan. Soldata bajaran poliziena da. Garai batean hau zela eta protesta bat egin zuten eta presidentek erantzun zien kalean eskatzeko. Orduan, legala izango balitz bezala eskatzen dute".

Hango familiak ere ez dira hemengoak bezalakoak, "ezkondu ez dira asko ezkontzen, elkartzen dira, bizitzen jarri, ume bat izaten dute, gero banatzea pentsatzen dute eta ume hori amak hezitzen du. Gizona

soltero bat bezala dago. Ume asko ez da eskolara joaten, aitak ez baitu errekonozitzen, orduan ezin du jaiotze akta atera, ez du abizenik eta ezin du eskolan matrikulatu".

Eguraldia

Ez dago urtaro aldaketa handirik, baina neguan freskoago egiten du. "Haseran joan nintzenean beti beroa nuen baina orain irailetik edo ez dut izarditu eta bentiladorea ere ez dugu piztu. Zikloiak oso maiz izaten dira, Puerto Ricon txikizio handiak egiten ditu, baina Errepublika Dominikarrera etorri beharrean Miami aldera desbideratzen dira".

Ura, berriz, soberan dago baina ez dago kanalizaziorik, "gure etxera egunean behin iristen da eta ez daki zu noiz. Ni aeroportuaren parean bizi naiz. Argia aeroportutik hartuta dago, eta argia maiz joaten den arren aeroportuak planta elektrikoak dituzte, guk beti izaten dugu argia. Ez dago argi zerbitzurik, oso gutxi dute kontadorea, egunero 9-10 orduz kentzen dute, eta oso faktura handiak iristen zaizkie eta ez badute ordaintzen kendu egiten dute, kableak moztzen dituzte, eta joan orduko berriro enpalmatzen ditu jendeak. Gure herrian hiru planta elektriko daude eta ez dago argirik, lotsagarria da".



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitzen bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz bestea

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 88 26 73



La Salleko ikasleak, 1977-78 ikasturtean

Ikurrina legeztatu zuten urteko argazkia da. Beasaingo La Salleko ikasleak agertzen dira bertan.

Zutik, Igo ilara: Carrasco, Jose Angel Lozano, Jose Ignazio Irastorza, Jose Joakin Domeño, Jesus Mari Arrugaeta, Iñaki De las Heras, Jose Manuel Zabaleta, Etxeberria Kerejeta, Jesus Rodriguez, Francisco Javier Otero eta Jose Ramon Noain.

Bigarren ilara: Gustavo Muñoz, Jose Luis Huertas, Ignazio Javier Alba, Pedro M. Santana, Jose Gonzalez, Jorge Mate, Jose Migel Martinez, Jose Ignazio Magdalena, Jose Migel Arrese, Carlos Javier Santoyo eta Javi Alcalde.

Hirugarren ilara: Aita Juanjose, Jose Francisco Ugalde, Migel Angel Perez, Juan Migel Olivares, Juan Migel Aiestaran, Jose Antonio Fuentes, Jose Ignazio Irastorza, Xabier Martinez, Jose Ignazio Calvo, Julian Carrillo eta Jesus Mari Etxabe.

Eserita: Jesus M. Talavera, Jose Antonio Cidoncha, Alberto Aguado, Martin Angel Zufiaurre, German Arraras, F. Javier Prats, Javier Fernandez, Jose Ignazio Ona, Jose Antonio Navarro eta Migel Angel Etxeberria.

GOIERRITARRA



88 96 12



ARRIZAR BODEGOIA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN



Zaldizurreta kalea

☎ 88 45 06

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

Ordu 1

ARGAZKIAK KOLORETAN ORDU 1EAN

- Neurria 10x15
- Errebelatua QSS sistemarekin
- Kalitate garantia goren

45 Pta. argazkia
(B.E.Z. eta negatiboaren errebelatua sartu gabe.
Bigarren kopientzat ezin daiteke zabal.)

Egun 1

ARGAZKIAK KOLORETAN KARRETEA HARTZETIK HURRENGO EGUNEKO 18:00 ORDUETATIK AURRERA

- Neurria 10x15
- Errebelatua QSS sistemarekin
- Kalitate garantia goren

35 Pta. argazkia
(B.E.Z. eta negatiboaren errebelatua sartu gabe.
Bigarren kopientzat ezin daiteke zabal.)



**Domingo
Unanue
Plaza, 1**

88 93 25

ORDIZIA

3 Egun

ARGAZKIAK KOLORETAN 3 EGUNETAN

- Neurria 10x15
- Errebelatua QSS sistemarekin
- Kalitate garantia goren

695 Pta. 12ko karreteko errebelatua eta argazkiak sartzen dira.
B.E.Z. ez da sartzen

995 Pta. 12ko karreteko errebelatua eta argazkiak sartzen dira.
B.E.Z. ez da sartzen

1.295 Pta. 12ko karreteko errebelatua eta argazkiak sartzen dira.
B.E.Z. ez da sartzen

Euskal Jaiak ORDIZIA

1997ko Irailaren 10

**ONGI ETORRIAK !
ONGI PASA EUSKAL JALETAN !**



GOIERRIKO GANADUA



OILOAK



IDIAZABAL GAZTA



PERRETXITU, FRUITU ETA BARAZKIAK

eskolara bueltan

Ondoen prestatutako
haurrak

Irailaren
20 *a*
arte

TESTULIBURUAK

Legeak
onartutako
beherapen
handienak

Hiru
hilabete
interesik
gabe

PRYCA

GOIERRI
MERKATARITZA ZENTROAK